



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ZUZENBIDE
FAKULTATEA
FACULTAD
DE DERECHO

**ISLAMA ETA ERLIJO-ASKATASUNA ESTRASBURGOKO GIZA
ESKUBIDEEN AUZITEGIAREN JURISPRUDENTZIAN**

ZUZENBIDE GRADU AMAIERAKO LANA 2020-2021

Egilea: Ariane Huici Diaz

Tutorea: Igor Mintegua Arregui

AURKIBIDEA

1	SARRERA	3
2	ERLIJIO-ASKATASUNA GIZA ESKUBIDEEN EUROPAKO HITZARMENAREN ARGITAN	5
2.1	PLURALITATEA EUROPAKO HERRIALDEEN ESTATU-ELIZA EREDUETAN	7
2.2	UNIBERTSALTASUNA ERLIJIO-ASKATASUNAREN BABESEAN . . .	8
2.3	ERLIJIO-ASKATASUNAREN HEDADURA MUGATUA	9
2.4	ESTATUAREN NEUTRALITASUN OBLIGAZIOA	12
2.4.1	ESTATUAREN NEUTRALITASUNA MURRIZTAPENEN PROPORZIONALTASUN IRIZPIDE BEZALA	12
2.4.2	ELIZA-ESTATU HARREMANAK EUROPAN	12
2.5	ESTATUAREN HAUTEMATE-MARJINA	15
2.6	GIZARTE EUROPARREN ERRONKA	16
3	ISLAMA GIZA ESKUBIDEEN EUROPAKO AUZITEGIAN	17
3.1	EPAIEN EGITATEEN LABURPENA	18
3.1.1	<i>DAHLAB V. SWITZERLAND</i> ; 2001 otsailak 15	18
3.1.2	<i>LEYLA SAHIN V. TURKEY</i> ; 2005ko azaroak 10	18
3.1.3	<i>DOGRU ETA KERVANCI V. FRANCE</i> ; 2008ko abenduaren 4 . . .	19
3.1.4	<i>AHMET ARSLAN AND OTHERS V. TURKEY</i> ; 2010ko otsailak 23	19
3.1.5	<i>S.A.S V. FRANCE</i> ; 2014ko ekainaren 26	20
3.1.6	<i>LACHIRI V. BELGIQUE</i> . 2018ko irailak 18	20
3.2	IRIZPIDEEN APLIKAZIOA GIZA ESKUBIDEEN EUROPAKO AUZITEGIAREN JURISPRUDENTZIAREN BAITAN	21
3.2.1	LEGEAK AURREIKUSITA	21
3.2.1.1	LEYLA SAHIN ETA ISTANBULEKO UNIBERTSITATEAREN ZIRKULARRA	22

3.2.1.2	ERREFERENTZIA BEREZIA DOGRU ETA KERVANCI: ZAPI ISLAMIARRA SOINKETA EGITEKO TRABA	24
3.2.2	HELBURU ZILEGIA ETA PREMIA SOZIAL LARRIA	25
3.2.2.1	SEGURTASUN PUBLIKOA ETA OSASUNA	25
3.2.2.2	GENERO BERDINTASUNA	27
3.2.2.3	SEKULARTASUNA-NEUTRALITASUNA ETA ANIZTASUNA-TOLERANTZIA	29
3.2.2.4	EREMU PUBLIKO ETA EREMU PRIBATUAREN IRIZPIDEA	32
4	ONDORIOAK	33
4.1	NORAINO HELTZEN DA AUZITEGIAK IKUR ETA JANTZI ISLAMIARREN ADIERAZPENARI EMATEN DION BABESA?	33
4.2	ESTATU EUOPARREK IKUR ETA JANTZI ISLAMIARREN LEGEGINTZAN NORANTZA ARGI BAT IZATEKO BEHARRA	35
4.3	ISLAMAREN GAINEKO IRIZPENAK ETA HORIEN ERAGINAK	36
4.4	ZEIN DA AUZIAREN KONPONBIDEA AURKITZEKO BIDE ZUZENA?	37
	BIBLIOGRAFIA	39
	JURISPRUDENTZIA	43

1 SARRERA

Europako estatu askotan, identitate musulmana duten pertsonen migrazioa eta integrazioa eztabaida politiko, juridiko eta sozial ugariaren jomuga izan da, eta oraindik ere bada. Zenbaitetan, hauteskundeetako kanpainetan puntu garrantzitsua izatera iritsi da ere, batez ere alderdi ultra-eskuindarren kasuan. Badirudi, gainera, gutxiengo horrekiko aurreiritziak eta islamarekiko beldurra Europako herrialde askoren legegileen idazkietan erreflexatua ikusi dela. Izan ere, *Pew Research Center*-en ¹ azken txosten batek Europako herrialdeen legegintzaren azken joera Islamarekin zerikusia duten auziekiko murriztailea dela erakutsi du.

Gizarteak izatez anitzak dira. Ideologia politiko, jatorri, sexu-orientazio edota erlijio sinesmen anitzak irizpide harturik bereiz daitezkeen norbanakoek osatzen duten bizikidetzaren espazioak. Europa ez da salbuespena. Historikoki islatuta geratu da bere hiritarren arteko identitate-aniztasuna; baita zein garrantzitsua den tolerantzian eta denon giza eskubideen babesean oinarritutako lege-esparru bateratua garatzea.

Printzipio hori jarraituz, eratu zen 1950. urtean Giza Eskubideen Europako Konbentzioa, baita Erromako Hitzarmena izenez ezagutzen dena. Bere 9. Artikuluan jasotzen da kontzientzia, pentsamendu eta erlijio askatasuna, zeinaren bidez aipatutako aniztasuna babesten den. Estatu sinatzaileek - (47 Estatu)²- hitzarmena errespetatzen dutela bermatzeaz Giza Eskubideen Europako Auzitegia arduratzen da, auzitegi honen jurisprudentziak funtsezko lana burutuko du giza eskubideen bermean eta baita hauen edukinaren eta mugen zehaztapenean.

Hala bada ere, begibistakoa da ez dela European Islamaren integrazio ez eta presentzia baketsua lortu: Mahomaren aurkako karikaturengatiko istiluak, errefuxatuak, Lagundu

¹Baronovski, C.- Wester, B. - Mitchel, T. - Majumdar, S. – Sandstrom, A. – Villa, V.,. "A closer look at changing restrictions on religion".Pew Research Center, 2019 uztailak 15 (azken kontsulta 2021 ekainak 12). Erabilgarri:<https://www.pewforum.org/essay/a-closer-look-at-changing-restrictions-on-religion/>.

²Hemen aurki daiteke Estatuen zerrenda: Convention for the Protection of Human Rights and Fundamental Freedoms. Chart of signatures and ratifications of Treaty 005, (eguneratua 2021ko ekainaren 14an; azken kontsulata 2021ko ekainaren 14an) Erabilgarri:<https://www.coe.int/en/web/conventions/full-list/-/conventions/treaty/005/signatures>.

Gabeko Adingabe Atzerritarren (LGAA) kriminalizazioa, Estatuaren arteko boikot komertzialak, atentatu terroristak eta horiek profitatuz areagotutako argudio islamofoboak. Argia da, gaur egun ere, Europako politika eta legegintzan puntu gori bat dela gutxiengo musulmanaren kudeaketa eta integrazioa. Eta zoritxarrez badirudi herrialdeen arteko desadostasunak marko juridiko bateratu eta hildo berdinean izatea oztopatzen dutela, konponbidea bistaratu ezinatzat jo dezakegularik. Desadostasun horiek hamaika faktore eta aurrekaritan dute oinarria, baina herrialde bakoitzak egiten duen aniztasunaren kudeaketan, estatu-egiturak nabarmenki finkatzen du bere politika izaera auzi hauen aurrean. Bereziki lan honen aztergaiari helduz, herrialde Europarrek duten Estatu-Eliza erlazio-ereduak garrantzi nabarmena du. Hori izan da ere Giza Eskubideen Europako Auzitegian bere erabakietan kontuan hartu behar izan duen faktore bat.

Baina lortu ahal du Auzitegiak 9. artikuluko horretan jasotakoa bermatzea? Islama fede gisa duten hiritarren erlijio askatasuna modu efektiboan bermatu du? Irizpide argi eta ekintza ildo zuzenak ezarri ditu Estatu Kideek jarrai ditzaten?

Erabaki beste iritzi dago galdera horien erantzun. Batzuren ustez ³ Auzitegiaren epaietan Islamarekiko aurreiritzi ezezkorrak antzematen dira. Kontrarioki, badira Islamaren kriminalizazioan parte hartze zuzena izatea leporatzen dietenak ere. Baita bere erabakitze irizpideak auziperatua den Estatuaren arabera aldatzen direla argudiatzen dutenak ere ⁴. Edonola bada ere, argia dena da Auzitegiaren erabakien neutraltasuna, lotetasuna eta inpartzialtasuna jokoan daudela, gutxienez gai honi dagokionez.

Gauzak horrela, lan honen helburua da, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak gai honen gainean hartu dituen erabakiak aztertzea da: erlijio-askatasunaren esparrua

³Ikus: KAYAOGLU, T. (2014): "Trying Islam: Muslims before the European Court of Human Rights", *Journal of Muslim Minority Affairs*, bol. 34, 2014 - Issue 4 (10/10/2014), 345-364. orr.-ak.

⁴Ikus: DENLI Ö., (2004). "Between Laicist State Ideology and Modern Public Religion: The Head-Cover Controversy in Contemporary Turkey". In: Lindholm T., Durham W.C., Tahzib-Lie B.G., Sewell E.A., Larsen L. (eds) *Facilitating Freedom of Religion or Belief: A Deskbook*. Springer, Dordrecht. 497-511 orr.-ak.

norainokoa den argitzeko; Estatuak eskubide horrekiko zein betebeharrak dituzten zehazteko; norbanakoen askatasunen eta Estatuaren diskrezionalitatearen arteko talkan jarraitu beharreko hildoa finkatzeko; eta bide batez, Auzitegiari leporatzen zaizkion portaerak egiazko oinarriak baduten aztertzeke.

Xede horiek jomuga izanik, lehen-lehenik aztergaiaren arlo teorikoari helduko zaio. Bada, askatasun-erlijiosoak barneratzen duen esparrua zein den aztertuko da Giza Eskubideen Europako Konbentzioak hura nola definitzen duen eta doktrinak nola interpretatzen duen aztertuz. Era berean, artikulua horren edukinak Estatu Kideei zein betebeharrak ezartzen dizkion landuko da; baita zein den haien hautemate marjina askatasun-erlijiosoa euren estatu-eliza harremanaren berezitasunei moldatzeko garaian.

Bestetik, Konbentzioak eta doktrinak finkatutako irizpide teoriko horiek Giza Eskubideen Europako Auzitegiak nola aplikatzen dituen aztertuko da. Horretarako, aztergaiari helduz, ikur eta jantzi islamiarren inguruko hainbat auzi eztabaidagarri mahaigaineratuko dira.

Azkenik, epai horien azterketan oinarrituz ondorio zehatzak aurkeztuko dira.

2 ERLIJIO-ASKATASUNA GIZA ESKUBIDEEN EUROPAKO HITZARMENAREN ARGITAN

Erljio askatasuna Europako Estatuaren funtsezko arauetan oinarritzko eskubide bezala aitortuta dago, oro har. Modu berean, Giza Eskubideen inguruko nazioarteko hitzarmenetan aitortutako eskubidea da ⁵. Zentzu honetan, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 9. artikuluan jasotzen da erlijio askatasuna, puntu honetan aztergai izango dena. Izan ere, testu hau da Europako testuinguruan Giza Eskubideen babesaren

⁵Esaterako hurrengo tratatuetan aitortua: Nazio Batuen Adierazpen Unibertsala 1948. urteko abenduaren 10koa: 7. eta 18. artikulua; Erljioan edo sinesmenetan oinarritutako intolerantzia eta diskriminazio modu guztiak ezabatzeari buruzko Adierazpena (1981ko azaroaren 25ekoa): 3. artikulua; Gutxiengo nazional edo etniko, erlijioso eta linguistikoetako kide diren pertsonen eskubideei buruzko adierazpena (1992ko abenduaren 18koa): 1. artikulua; Eskubide Zibil eta Politikoaren Nazioarteko Ituna (1966ko abenduaren 16koa): 18. artikulua.

bermean aurki daitekeen hitzarmen nagusia, bere protokolo gehigarriekin batera⁶.

Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Hitzarmena 1950. urteko azaroaren 4an sinatu zen Erroman Europako Kontseiluaren kideen artean eta 1953. urteko irailaren 3an sartu zen indarrean. Hitzarmen honek Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean⁷ aitortutako eskubide ugari zehazten ditu. Giza Eskubideen Europako Auzitegiari dagokio Giza Eskubide eta Funtsezko Askatasunak errespetatzen direla ziurtatzeko eskumena. Hitzarmena berretsi duten Estatuak - Hitzarmenaren Estatu Kide deiturikoak- bertan jasotako eskubide eta betebeharrekin bat etorritik jarduten dutela ikuskatzeko eskumenduna da, alegia. Europako Kontseiluko organo judiziala da hau, eta loteslea da bere parte diren Estatuentzat. Auzitegiak herritarrek tarteratutako demandak ez ezik, Estatu batek beste Estatu baten praktika salatuz tarteratutako demandak ezagutzeko eskumena du ere. Era berean, bere eskumena ez da Estatu Kideen naziokotasuna duten herritarretara mugatzen, Estatu horien eskumenarenpean dagoen pertsona orori baizik. Auzitegia 47 epailek osatzen dute, Estatu kide bakoitzeko bat, baina ez dute Estatu horren izenean jarduten, epaile independente moduan aritzen dira⁸. Kontseilu Europarreko Parlamentu Batzarrak aukeratzen ditu, bederatzi urteko agintaldi berriztaezin baterako.

Bederatzigarren artikuluan jasotako erlijio-askatasunaren marko teorikoa ulertu dadin, lehen lehenik Erromako Hitzarmenaren printzipio zuzentzaile kontsideratzen diren hainbat hastapen eta doktrinari⁹ heldu behar zaio. Oro har, bi interes nagusi daude jokoan hiritarren askatasun erlijiosoa eta Estatuak horrekiko duten betebeharra noraino

⁶Giza Eskubideen Europako Hitzarmena. Espainiako Estatuak 1977ko azaroaren 24an berretsia; BOE 243 zbk. 1979ko urriaren 10 (azken kontsulta 2021ko ekainaren 14an). Erabilgarri:<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-1979-24010>.

⁷Nazio Batuen Batzar Nagusiak onartu zuen Parisen 1948. urteko abenduaren 10ean. 30 artikuluren baitan Funtsezko Giza Eskubideak zeintzuk diren adierazten da. Sinatzaileak Nazio Batuen erakundearen Estatu Kideak dira. Eskuragarri: Universal Declaration of Human Rights <https://www.un.org/es/about-us/universal-declaration-of-human-rights> (azken kontsulta 2021ko ekainaren 14an).

⁸Ikus: Tribunal Europeo de Derechos Humanos: El TEDH en 50 Preguntas; 2012ko uztaila (azken kontsulta 2021ko ekainak 13). Erabilgarri:https://www.echr.coe.int/Documents/50Questions_SPA.pdf

⁹VANONI, L., eta RAGIONE, G., "From the Secularisation Theory to the Pluralistic Approach: Reconciling Religious Traditions and Modernity in Italian Case-Law." En *Law, Religion and Tradition* (ed. Jessica GILES J., Pin, A. eta Frank S. Ravitich). Springer International Publishing, Suiza, 2018.1-28. orr.-ak

heltzen den neurtzeko orduan: 1) Estatu-eliza erlazio ereduak aukeratzeko - Estatuek duten- askatasuna (pluralitatea¹⁰); 2) Erlijio-askatasuna errespetatua izan dadin bete beharreko irizpideak (unibertsaltasuna)¹¹. Eta horiek nola orekatu jakin ahal izateko dira beharrezkoak segidan mahaigaineratuko diren kontzeptuak.

2.1 PLURALITATEA EUROPAKO HERRIALDEEN ESTATU-ELIZA EREDUETAN

Estatu ezberdinek fenomeno erlijiosoaren aurrean hartzen duten jarrera kontuan hartuz, ukaezina da Europako herrialdeen artean ematen den eliza-estatu harremanaren eredua anitza dela. Dibertsitate hori aintzat hartu du Giza Eskubideen Europako Auzitegiak, Estatu kide bakoitzean erlijioaren eta Estatuaren arteko harremana herrialde bakoitzaren historiak, gizarteak eta beste hainbat faktore kulturalak ardaztu dutela azalduz¹².

Doktrinak¹³ zein Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentziak argi utzi dute GEEK-en 9. artikulua¹⁴ helburua erlijio askatasuna babestea dela; ez aldiz, Estatu-konfesioen harreman eredu zehatz eta bateratu bat ezartzea. Are gutxiago Estatuaren sekularizazioa inposatzea¹⁵.

¹⁰Erlijio-askatasuna Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren doktrinak Estatu-eliza harreman ugari eta ezberdinen koexistentzia "aniztasun" hitzaz definitzen du (diversity/ diversidad). Bestalde, gizartean aurki daitezkeen gutxiengo edo komunitate ezberdinen elkarbizitzari ere aniztasun hitza egokitzen zaion heinean "pluralitate" hitza erabiliko da, lanean zehar bi errealitateak termino beraz definitzeagatik nahastu ez daitezten.

¹¹Kontzeptu hauen inguruan sakontzeko ikus: MARTÍNEZ-TORRÓN, J., "Freedom of Religion in the European Convention on Human Rights Under the Influence of Different European Traditions". *The Pontifical Academy of Social Sciences Acta 17: Universal Rights in a World of Diversity, – The Case of Religious Freedom*, 2011 maiatzak 3. 328-355. orrialdetan.

¹²Ikus: *Handyside v. United Kingdom*, 1976ko abenduak 7koa; *Manoussakis v. Greece*, 1996ko irailaren 26koa, § 47; *Hasan and Chaush v. Bulgaria*, 2000. urteko urriak 26koa, § 78.

¹³TORRES GUTIÉRREZ, A., "La libertad de pensamiento, conciencia y religión (art. 9 CEDH)". HHAA, *La Europa de los derechos: el Convenio Europeo de Derechos Humanos* (koor. Santolaya Machetti P., eta Garcia Roca, F.J), Espainia, 2005. 567-589 orr.-ak

¹⁴Gaztelaniako bertsioan "Artículo 9 del Convenio Europeo de Derechos Humanos" erabilgarri: https://www.echr.coe.int/documents/convention_spa.pdf (azken kontsulta 2021 ekainak 12).

¹⁵Adibidez: *Otto-Preminger-Institut v. Austria*, 1994ko irailaren 20koa; *Wingrove v. United Kingdom*, 1996ko azaroaren 25koa.

Erljio ezberdinetako komunitateekin harremantzeko eredu eta irizpideen artean dibertsitatea egotea, ez da beraz GEEK-en printzipioen kontra joaten¹⁶. Izan ere, Hitzarmenak zenbait eliza edo erlijiori nolabaiteko pribilegioak ematea ere ontzat jotzen du¹⁷; horrela Europar konfesionaltasun soziologikoaren arrastoak aurki ditzakegu edo formalki erlijio bat ofizialtzat jotzen dituzten Estatu-ereduak. Formula hauek zilegiak kontsideratu dira, beti ere eredu horien aplikazio edo garapenean diskriminazio efektu nabarmen bat ematen ez den bitartean edota erlijio eta ideologia askatasunean - talde zein norbanakoen askatasunean- justifikatu gabeko kalte bat sortzen ez bada.

Zer da baina diskriminazio efektu nabarmen bat? Eta zein kasutan dago justifikatuta eskubide eta askatasun horien egikaritza botere publikoek mugatzea? Galdera hauen erantzunak GEEK-en 9. artikuluan aurki badaitezke ere, ezinbestekoa da alde aurretik erlijio askatasunaren eztabaida Europarra ebazteko kontuan hartu behar den beste printzipio bat mahaigaineratzea: Unibertsaltasuna da, hain zuzen, Estatuak Konbentzioan aitortzen den sinesmen askatasuna errespetatu dutela jakiteko aipatu berri den dibertsitatearen printzipioarekin balantzan jarri behar den nozioa¹⁸.

2.2 UNIBERTSALTASUNA ERLIJIO-ASKATASUNAREN BABESEAN

Giza Eskubideen Europako Konbentzioak barneratzen duen printzipioetako bat da unibertsaltasuna. Zentzuduna da aintzat hartzen bada nazio edo estatus gaindiko hitzarmenen xede nagusieako bat beti izaten dela gutxiengo arau batzuk finkatzea, hitzarmena sinatzen duten herrialde guztietan minimo bateratu batzuk egon daitezen.

Unibertsaltasunaren printzipioaren asmo nagusia da norbanako zein taldeen erlijio eta pentsamendu askatasuna babesterakoan berme gradu bera ematea GEEK-en Estatu sinatzaile guztietan; erlijio askatasuna bermatu dadin errespetatu beharreko gutxiengo

¹⁶Auzitegiak *Lautsi and others v. Italy*, 2011ko martxoaren 18koa, ebazpeneko 68. artikuluan, hurrengoa adirazten du "(...) the Court must take account of the fact that Europe is characterised by great diversity between its constituent States, particularly in terms of cultural and historical development (...)".

¹⁷Ikus: *Lautsi and others v. Italy*, 38. paragrafoa.

¹⁸MARTÍNEZ-TORRÓN, J., "Freedom of religion (...)" op. cit., 332. orrialdea.

batzuk ezartzea, alegia. Izan ere, autoritate nazionalek beren estatu-eliza harremanen berezitasunak aldarri, norbanakoen erlijio askatasuna bortxatu lezakete, edota sinesmenen bat besteeikiko gutxietxi.

Unibertsaltasuna premiazko hastapen bat da, zein zentzu izanen luke Konbentzioak Estatuaren diskrezionalitatea mugatzen ez duen neurririk ez balu? GEEAren aburuz, eskubide eta askatasun hauek bereganatzeko asko borrokatu izan da historian zehar, eta bereziki garrantzitsua da oraingo gizarte demokratikoetan ematen den aniztasun - kultural, erlijioso eta ideologikoa- dagokion moduan kudeatu ahal izateko. Elkar-bizitzan funtsezkoa den diskriminazio eza bermatu dadin. Unibertsaltasun hau, Auzitegiak “ondasun preziatu” gisa definitu du, ez bakarrik hiritar erlijiodunentzat, baita euren burua ateo edo agnostikotzat dutenentzako¹⁹.

2.3 ERLIJIO-ASKATASUNAREN HEDADURA MUGATUA

Erljio-askatasunaren egikaritzea, beraz, mugatua ikusi daiteke Estatuaren ordenamenduen aldetik. Zentzu horretan, Estatu-eliza erlazio eredu zehatzek baldintzatu dezake erlijio-askatasunaren egikaritzaren eremua. Edozein kasuan, muga horiek baldintza batzuk bete behar dituzte. Ezin da hala-nola mugatu erlijio askatasuna Eliza-estatu eredu baten izenean.

Arlo honetan, aurreko epigrafeetan aztertutako bi printzipioen (pluraltasuna eta unibertsaltasuna) interpretazio konbinatu bat egin behar da. Interpretazio konbinatu hori da GEEK egiten duena bere 9.2. artikuluan oinarritutako Estatuaren apreziazio marjinaren doktrinaren bidez.

Konbentzioan aitortutako erlijio askatasunari dagokionez baina, zer esan nahi du

¹⁹ *Kokkinakis v. Greece*, 993ko maiatzaren 25ekoa, § 31, “...freedom of thought, conscience and religion is one of the foundations of a ‘de- mocratic society’ within the meaning of the Convention. It is, in its religious dimension, one of the most vital elements that go to make up the identity of believers and their conception of life, but it is also a precious asset for atheists, agnostics, sceptics and the unconcerned. The pluralism indissociable from a democratic society, which has been dearly won over the centuries, depends on it.”

Estatuek hautemate-marjina dutela?

GEEK-en 9. artikulua kasuan, Estatuak hautemate-marjina dutelako baieztapenak esan nahi du Estatuak badutela nolabaiteko erabakitze ahalmen bat askatasun-erlijiosoaren sistemari egokitu ahal izateko²⁰; Estatu-Eliza loturaren eredia eta erlijioarekiko Estatuak duen jarrera sistema konkretuekin bat datorren erlijioaren adierazpena zein den aukeratzeko eta askatasun hori zein kasutan doitu daitekeen finkatzeko eskubidea, alegia.

Haatik, hautemate-ahalmen hori ez da mugagabea²¹. Artikulu horretan bertan (GEEK 9.2 artikulua) jasotzen dira erlijio askatasunari mugak ezartzea zilegi izan dadin bete beharreko baldintzak²².

(1) Segurtasun juridikoari helduz, lehenengo baldintzak galdatzen du askatasun erlijiosoari ezartzen zaion formalitate, baldintza, murrizketa edo zehapen oro legez aurrekisirik egotea. Baldintza honen inguruko doktrina haratago doa, “ legez aurreikusirik” horren baitan legeak ez ezik, jurisprudenzia eta erregulazio administratiboak biltzen direla baieztatzen baitu²³. Zuzenbide zibilaren ordez "common law" sistema duten herrialdeak kontuan harturik, legeak aurreikusgarritasuna izan dezan ez du ezinbestez idatzirik egon behar.²⁴

²⁰MARTÍNEZ-TORRÓN, J. “Los límites a la libertad de religión y de creencia en el Convenio Europeo de Derechos Humanos”. *Revista General de Derecho Canónico y de Derecho Eclesiástico del Estado*, No 2, Madril 2003.

²¹MARTÍNEZ-TORRÓN, J. "Los límites a la libertad de religión...", op.cit.,14. orrialdea

²²Hautemate marjinaren doktrina lehen aldiz *Handyside* (§§ 48-49) kasuan azaldu zuen Auzitegiak, 1976ko abenduaren 7an ebatzia. Aurrez, modu inplizituan bada ere, beste ebazpen batzuetan adierazten da kontzeptu hau, esaterako ikus: *Engel and others v. Netherlands*, 1976 ekainak 8.

²³Horrela onartu du Komisioak behin baino gehiagotan: Dec. Adm. 1753/63, 8 Yearbook of the European Convention on Human Rights 174; Dec. Adm. 5442/72, 1 Decisions and Reports 41; Dec. Adm. 8010/77, 16 Decisions and Reports 101; Dec. Adm. 12587/86, 53 Decisions and Reports 241.

²⁴*The Sunday Times v. Great Britain* kasuan modu argian adierazten du Auzitegiak lege hitzaren esanahia Konbentzioan: "The Court observes that the word "law" in the expression "prescribed by law" covers not only statute but also unwritten law. Accordingly, the Court does not attach importance here to the fact that contempt of court is a creature of the common law and not of legislation. It would clearly be contrary to the intention of the drafters of the Convention to hold that a restriction imposed by virtue of the common law is not "prescribed by law" on the sole ground that it is not enunciated in legislation: this would deprive a common-law State (...) and strike at the very roots of that State's legal system." (The Sunday Times, § 47).

(2) Neurri murriztaileak hurrengo printzipioen bat bermatzea izan behar du helburu:
(2.1) Segurtasun publikoaren interesa; (2.2) osasun, moral edo ordena publikoaren babesa; (2.3) gainontzekoen eskubide zein askatasunen babesa.

(3) Neurriak - gizarte demokratikoaren baitan- beharrezkoa izan behar du. Auzitegiak baztertu egin du zentzu arin edo lausoago bat ematearen aukera; izan ere, “ onargarri”, “erabilgarri”, “ zentzudun” eta bestelako adierak emanez interpretatzea arbuiatu du²⁵. Are gehiago, Auzitegiak egindako interpretazioaren arabera “premiazko beharrizan soziala”²⁶ existitu behar da norbaiten erlijio askatasuna zilegitasun osoz murriztu ahal izateko.

Xedapen honetan aipatzen diren kontzeptuak nabarmen lausoak eta zehazgabeak diren heinean etengabeko interpretazio judiziala galdatzen dute, kasuz-kasuko azterketa, alegia. Orobat, kontzeptu horiek hizkera bakoitzean adiera ezberdinak hartu litzakete, premiazkoa bihurtuz GEEA-k 9.2 artikuluko baldintzak betetzen diren ala ez *ad casum* erabakitzea.

Modu horretan, hautemate marjinararen doktrinak mugatutako eskumena aitortzen die agintari nazionalari, zehaztu dezaten zein kasutan den beharrezkoa- eta hortaz, zilegia -erlijio askatasuna murriztea. Aldi berean, doktrina honek GEEA-ri esleitzen dio autoritate nazionalen erabakiak gainbegiratzeko eskumena, Estatuak kasu zehatzetan hartutako neurri murriztaileak zilegiak diren ala ez erabakitzeko eskumena, hain zuzen. Esan bezala, 9. artikuluan bertan jasotako baldintzak errespetatu direla egiaztatuko du Auzitegiak, baita neurriek proportzionalitate printzipioa errespetatu dutela²⁷.

²⁵ Interpretazio hau Auzitegiak berak azaltzen du Konbentzioaren 9. artikulua ulertzeko gidan, ikus: European Court of Human Rights "Guide on Article 9 of the Convention". *Freedom of thought, conscience and religion*. © Council of Europe/European Court of Human Rights, 2021 (azken egunerapena: 2020 abenduak 31; azken kontsulta: 2021 ekainak 14).

²⁶ Ikus: *Handyside*, § 48; *The Sunday Times*, § 59; *Dudgeon v. Great Britain* § 51; eta *Lingens v. Austria* § 39.

²⁷ Ikus: McBRIDE, J., "Proportionality and the European Convention on Human Rights". *The Principle of Proportionality in the Laws of Europe* (ed. by E. Ellis), Oxford 1999. 23-36. orr.-ak.

2.4 ESTATUAREN NEUTRALITASUN OBLIGAZIOA

2.4.1 ESTATUAREN NEUTRALITASUNA MURRIZTAPENEN PROPORZIONALITASUN IRIZPIDE BEZALA

Estrasburgoko Giza Eskubideen Auzitegiak hainbat irizpide erabili izan ditu erlijio askatasunari ezarritako murriztapenen proportzionalitatea zehazteko, eta horietako bat Estatuaren neutraltasun obligazioa izan da. Arazoa da - kontzeptu abstraktu bat denez- Europako marko legalean neutraltasunak duen adiera zenbait kasutan ez datorrela bat Estatuak duten ikuspuntuarekin edo haien barne legeriak kontzeptu horri ematen dion zentzuarekin.

Estatuen neutraltasuna Europar erara ulertzeko Manoussakis kasura ²⁸ jo behar dugu, kasu horren baitan GEEAk zehazten du “ Konbentzioaren baitan bermatutako erlijio askatasunak Estatuaren irizpen oro baztertzen du erlijio sinesmenak edo horiek adierazteko moduak zilegiak diren zehazterakoan” ²⁹. Auzitegiak ebazpen honekin egiten duen baieztapenak arazoak sortu litzake, batik bat kontuan hartzen badugu erlijioen arau moralek zenbaitetan gizarte zehatz baten balore etiko eta moral hedatu eta partekaturen kontrakoak izan daitezkeela. Edota balore konstituzionalen kontrakoak. Dena den, argi geratzen dena da Estatuak ez dutela eskumenik printzipio erlijiosoaren eta dogmei buruzko irizpenak egiteko, ezta ere horien egiazkotasuna edo faltsutasunari buruz erabakitzekeo³¹.

2.4.2 ELIZA-ESTATU HARREMANAK EUROAPAN

Estatuak neutraltasuna nola ulertzen duten Eliza-Estatu sistemarekin hertsiki lotuta dago. Hain da horrela, aurrerago mahigaineratuko den lez GEEA-k irizpidetzat hartu izan duela askatasun erlijiosoaren murriztapenak zilegiak diren erabakitzekeo orduan ³². Gainontzeko herrialdeen antzera, Estatu-eliza harreman ezberdinak aitortzen dituzte

²⁸ *Affaire Manoussakis et Autres c. Grece* (Requête no 18748/91), Estrasbourgon 1996ko irailaren 26, (azken kontsulta:2021/06/13). Erabilgarri:www.shorturl.at/jsxGP.
2930

³¹ MARTÍNEZ-TORRÓN, J., "Freedom of Religion...", op.cit.,329-335 orr.-ak
³²³³, 17. paragrafoa.

GEEK-en parte diren Estatu europarretako konstituzioek : Estatu konfesionalak, akonfesionalak edo laikoak aurkitu ditzakegu. Lehen biak - teorian behintzat- ondo definituta daude, aitzitik ez dago laikotasuna aplikatzeko forma bakar bat, ez eta Konbentzioak hobetsitako formula bat³⁴.

BAUBEROT irakaslea - erlijioen soziologian aditua- oraindik haratago doa ³⁵, eta laikotasunaren materializazio ezberdinak sailkatzen ditu ³⁶. Historikoki erlijioarekin izan duen harremana eta Estatu horren identitatean konfesio batek izan duen pixua ardatz hartuta, lau multzotan sailkatzen ditu laikotasuna ulertzeko modu ezberdinak:

1.Kasu batzuetan gertatu izan da Estatu batek beste erlijio bateko Estatu baten menpekotasuna jasan izana, eta beraz erlijio jakin batek - menpekotasun hori jasan aurretik nagusi zen erlijioa- indar zapaltzaile atzerritar horrekiko erresistentzia irudikatzea. Irlanda, Polonia, Bulgaria, Grezia eta Errumaniaren kasuetan, adibidez, aurki dezakegu eredu hau. Erlijioa erresistentzia eta emantzipazio gisa ulertutzen da, hain zuzen.

2. Bereizten duen bigarren multzoan, euren identitatean eta eraketa konstituzionalean erlijioak aparteko garrantzia izan duen Estatuak biltzen dira. Hauetan, Estatuak garrantzia ematen dio sinesmen askatasunari. Muturreko laikotasunaren kasuan - esaterako, Frantzian ematen den eredian - ez bezala, konfesio desberdinekin lankidetzaren harremanak dituzte erlijio-askatasunaren egikaritza errezteko. Bestalde, arrazoi historiko eta soizokulturalak direla eta, zenbait kasutan gertatzen da konfesio zehatz bati edo batzuei trataera pribilegiatua ematea. Espainia, Italia eta Alemaniaren kasua da hau. Nahiz eta euren artean ere ezberdintasunak aurkitu: Espainia eta Italian fede katolikoa nabarmen garrantzitsua da, historikoki izan duen pixua dela eta oraindik ere

³⁴Europar zehar aurki ditzakegun ereduaren inguruan ikus, besteak beste, FERNÁNDEZ-CORONADO GONZÁLEZ, A., “Marco comparado de la Libertad religiosa en España”, *Revista de Derecho-UNED*, 11. zenbakia, 2013, 279-316 orrialdeak.

³⁵BAUBEROT, J., *Les laïcités dans le monde*. Presses Universitaires de France, 2010.

³⁶Bepax, ed. Camille Baise. *Citoyenneté à l'école: avec ou sans convictions? Approches européennes*; 2018 otsailak 13 (azken kontsulta: 2021 ekainak 14). Erabilgarri: <https://bepax.org/publications/citoyennete-a-l-ecole-avec-ou-sans-convictions-approches-europeennes.html>

Estatuko erlijio nagusitzat jotzen direlarik; Alemanian katolizismo eta protestantismoaren elkarbizitza ematen da. Herrialde hauetan, laikotasun positibotzat³⁷ ezagutzen dena baliatzen da Estatuaren neutraltasuna eta erlijio-askatasunaren eskubidearen egikaritzaren bermaren arteko oreka kudeatzeko.³⁸

3. Europa ekialdeko herrialdeek - Berlingo harresiaren erorketararte URSSren baitan kokatzen zirenak- laizismoarekiko eta erlijioarekiko jarrera ezberdinak garatu dituzte. Horren adibide da Txekiar Errepublikak aldarrikatzen duen antiklerikalismoa eta Eslovakiako Estatuan katolizismoari ematen zaion aparteko garrantziaren kontraesana.

4. Erresuma Batuan eta herrialde eskandinabiarretan laikotasun murriztago bat ematen dela kontsideratzen du Baubérot-ek, formalki behintzat. Izan ere, Ingalaterra eta Eskoziak erlijio jakin bat dute finkaturik -eliza anglikarra da ofiziala- eta Danimarkak erlijio nazional bat du - ebanjeliko luteranoa-. Estatu hauetan erlijio nagusiak zentzu bikoitza du: alde batetik, “ Estatuaren erlijio” ofizialtzat hartzen da, identitate nazionala sinbolizatuz, lotura eta pribilegio politikoak profitatuz, eta zerbitzu publiko moduan funtzionatuz; alabaina, beste edozein erlijioaren edo konfesioren gisan garatzen da, beren fededunei arau eta praktika zehatzak aginduz.

5. Azkenik, laikotasunaren muturreko interpretazioa besarkatzen duen adibidetzat Frantziar Estatu dugu. Kasu honetan ere historiak badu zerikusirik Frantziar Iraultzan aldarrikatutako “ Liberté, Égalité, Fraternité” filosofian oinarritzen dute barne arauen bidez aldarrikatzen duten laizismoa. Belgikak ere -nahiz eta ofizialki sinesmen ezberdinak onartu- Frantziaren jarrera antzekoa azaldu du hainbat erlijio adierazpenekiko erantzun juridiko-politikoren bidez³⁹.

³⁷Laikotasun positiboaren inguruan ikus, CASTRO JOVER, A., “Laicidad y actividad positiva de los poderes públicos”, *Revista General de Derecho Canónico y Derecho Eclesiástico del Estado* (www.iustel.com), 3. zenbakia, 2003.

³⁸GAMPER, D., *Laicidad europea*. Apuntes de filosofía política postsecular, Bellaterra (Barcelona), 2016. 132. orr.

³⁹*S.A.S v. France* kasua 2014ko uztailearen batekoa; 156. paragrafoan aitortzen du Frantziaren eta Belgikaren berezitasuna -Europako beste Estatuekin alderatuz- erlijio adierazpenekiko lege eta arau murriztaileak baliatzeko joeran.

Teoria honek batik bat Estatuak euren konstituzioetan aitortuta duten Estatu-eliza harreman sistemari, eta hori sustatu duten egitate historikoei heltzen dio. Ez dugu ahaztu behar ordea, zenbait kasutan Estatuak ez dutela sistemarekin bat etorri jarduten, eta bestelako norabideak hartzen dituztela praktikan. Horren adibide da Turkiaren kasua, bere konstituzioari jarraiki Estatu laiko bat izaten jarraitzen badu ere, aditu gehienek salatu izan dituzte Estatu horrek Islam sunitaren jarraitzaileak ez diren pertsonak diskriminatzeko duen joera⁴⁰.

Komeni da gogora ekartzea sistema guzti hauek, ezin direla inoiz Konbentzioan adierazitako askatasunak antzuteko erabili, eta 9. artikulua errespetuarekin bat, 14. artikuluan jasotako diskriminazio eza bete behar dutela beti Estatuak.

2.5 ESTATUAREN HAUTEMATE-MARJINA

Printzipio hauen inguruko teoria erraz ulertu baidateke ere, aplikazioak hamaika arazo sortzen ditu. Izan ere, gutxiengoaren eskubideak eta Estatuaren interesak sartzen direnean jokoan, inguruabar ugari hartu behar dira kontuan. Giza Eskubideen Europako Auzitegiak unibertsaltasuna eta dibertsitatearen arteko oreka bilatzeko darabilen bitarteko edo baliabide nagusia “apreziazio marjinaren doktrina” da.

Doktrina honen arabera, Estatu guztiek - konbentzioaren parte direnak- giza eskubideei buruzko oinarri bera dute. Bestalde, estatus-estatu askatasun erlijiosoari ezarri dakizkiokeen mugak aldaketak jasan litzakete Estatu bakoitzaren sistemara egokitzerakoan. Hau da, zilegia da Estatuak GEEK-en aitortutako eskubide eta askatasun batzuei (8-11 artikulua) mugak ezartzea. Auzitegiaren arabera, ezinbestekoa da Estatuari arrazoizko hautemate-marjina bat aitortzea askatasun bati mugak ezartzea beharrezkoa bihurtzen den kasuetarako. Estatuak, euren gizarteetatik hurbilago daudenez, neurri murriztaileak beharrezkoak noiz diren eta nola ezarri behar diren jakiteko aproposagoak direlako argudioa da Auzitegiak hautemate-margina hori

⁴⁰ÁLVAREZ CORTINA, A.C., “Derecho de las confesiones religiosas a la selección del personal por las creencias”. En *La jurisprudencia del Tribunal Europeo de Derechos Humanos en torno al derecho de libertad religiosa en el ámbito laboral* (ed. Motilla A.), Comares, (Granada), 2016. 183-223 orr-ak.

aldarrikatzeko baliatu duena. Labur, Auzitegiaren aburuz Estatuaren barne-legeriak gaitasun hobeak du bere jurisdikzioan dauden herritarren askatasunei mugak ezartzeko, eta hortaz hautemate-marjina bat aitortu behar zaie interes-publikoaren beharrak zein diren erabaki dezaten.

2.6 GIZARTE EUROPARREN ERRONKA

Europako Estatu gehienek aurpegiatu dute noizbait euren gizartearen baitan emandako erlijio askatasunari buruzko eztabaidak, polemikak, auzi judizialak eta bestelakoak⁴¹. Hots, denek aurre egin behar izan diote gutxiengo erlijiosoaren kudeaketari, eta erabaki behar izan dute Estatu-eliza harremanak zein modutan eragingo lukeen beren herritarren askatasun erlijiosoa. Egun, arazoa gutxitu ordez, are larriagoa eta korapiltsuagoa bihurtu da, gizarteak monokulturalak eta nagusiki kristauak izateari utzi diotela, eta horren ordez, fede, kultura eta ideologia aniztasuna gailentzera iritsi baitira.

Aniztasun horren oinarrian arrazoi ugari aurki badaitezke ere, azken ikerketa, eztabaida eta auzi polemikoetan indarra hartu duen egitate bat islamaren presentziaren gorakada da.

Ez dira gutxi izan, GEEA-ra heldu izan diren musulmanen askatasun erlijiosoa aztergai duten auziak. Ez dira gutxi izan ere ez Auzitegiak ebatzitakoak. Bestalde, aditu zein herritarren arteko eztabaida eta ikuspuntuak askotarikoak direla kontuan hartuta, begi bistakoa da argitasuna falta dela auzi honen inguruan. Bada, Islamarekin dauden tentsio politikoak eta egitate gatazkatsu etengabeak are korapiltsuagoa egiten dute gai honen trataera, eta ondorioz GEEAren lana.

⁴¹ NAVARRO-VALLS, R. eta MARTINEZ-TORRÓN, J., *Conflictos entre conciencia y ley: Las objeciones de conciencia*. Iustel. Madril, bigarren edizioa 2012.

3 ISLAMA GIZA ESKUBIDEEN EUROPAKO AUZITEGIAN

Islamaren inguruko eztabaida ikaragarri zabala da, esan bezala geroz eta ugaritasun handiagoarekin jasotzen ditu Giza Eskubideen Europako Auzitegiak eskaerak herritar musulmanen erlijio-askatasunaren gaineko murrizketak barneratuz⁴². Era berean, beste erlijio batzuen auziek baino buruhauste handiagoak sortzen dizkio Auzitegiari, musulmanen erlijio-askatasunari lotutako ebazpenak nabarmen kritikatuak izan baitira. Batzuen ustetan Auzitegiak ikuspegi eurozentrista eta ezjakintasun nabarmena adierazi du Islamaren inguruko hainbat irizpen egiterako orduan⁴³. Beste batzuek diote atentatu terroristen edo radikalizazioaren beldurragatik⁴⁴, Islamari askatasun handiago bat uzten diola. Eta erabat kontrako iritzia dutenak ez dira falta, Auzitegiari ikuspuntu islamofobo bat leporatzen diotenak⁴⁵, hain zuzen.

Erljio askatasunaren baitan eman daitezkeen eztabaidak askotarikoak izan daitezke, eta lan honen luzera mugatua den heinean, Auzitegiak ikur eta jantzi erlijiosoen inguruan garatu duen jurisprudentzia aztertzer mugatuko da; erlijio askatasunaren barruan, adierazpen ohikoena da hau, eta hortaz nabarmen eztabaidagarria izan da. Batik bat aztertuko da Konbentzioko 9. artikuluan xedatutako irizpideak nola aplikatu izan dituen Auzitegiak, jurisprudentziaren norantza argi bat badagoen baloratzearren.

Horretarako, lehen lehenik irizpideen aplikazio horretan mahaigaineratuko diren auzien aipaketa labur bat egingo da - modu kronologikoan- , hauen nondik-norakoak jakinda auzitegiaren iritzia errazatasunez ulertuko direlakoan.

⁴²BREMS, E., "Ebrahimian v France: headscarf ban upheld for entire public sector." *The Strasbourg Observers*, Azaroak 27, 2015, <https://strasbourgobservers.com/2015/11/27/ebrahimian-v-france-headscarf-ban-upheld-for-entire-public-sector/>.

⁴³CEBADA ROMERO, A., "The European Court of Human Rights and religion: Between christian neutrality and the fear of Islam". *The New Zealand journal of public and international Law, Bill of rights anniversary special issue*, bol.11, 1^o zkb, 2013 azaroa, 75-102 orr.-ak.

⁴⁴Ikus: D. MCGOLDRICK, D., 'Sharia Law in Europe? Legacies of the Ottoman Empire and the European Convention on Human Rights. *Oxford Journal of Law and Religion* (2019/8), 2019 urriaren batean argitaratua; 517-66. orrialdeak.

⁴⁵Besteak beste ikus: SCHEININ, M., "International Human Rights Law and the Islamic Headscarf: A Short Note on the Positions of the European Court of Human Rights and the Human Rights Comitee", (hainbat autore) *Islam, Europe and Emerging Legal Issues*, Farnham, Ashgate, 2012, 83-86 orrialdeak; eta MOE, C., "Refah Revisited: Strasbourg s Construction of Islam", (hainbat autore) *Islam, Europe and Emerging Legal Issues*, Farnham, Ashgate, 2012, 235-272 orrialdeak.

3.1 EPAIEN EGITATEEN LABURPENA

3.1.1 *DAHLAB V. SWITZERLAND*; 2001 otsailak 15

Kasu⁴⁶ honetan, eskatzailea musulman bilakatutako Lehen Mailako eskola irakasle bat da. Zapi islamiarra eramanez bi urtez irakasle gisa jardun izan ondoren, eskolak zapia erabiltzea debekatu egin zion. Eta 1997an Suitzako Auzitegi Federalak arrazoia eman zion eskolari. Dahlab andereak argudiatu zuen zapia eramanez klaseak eman zituen bi urte horietan ez zela inongo arazo berezirik eman.

Auzitegiak ez zuen kasua onartu nabarmenki funtsagabea zela esanez. Era berean ez zuen neurria zentzugabetzat jo, eskatzailearen ikasleak 4-8 urte bitarteko haurrak zirela eta modu errazagoan influentziatu zitezkeela adierazi zuen.

3.1.2 *LEYLA SAHIN V. TURKEY*; 2005ko azaroak 10

Kasu⁴⁷ honetan eskatzailea familia tradizional musulmandar batekoa da, eta bere betebeharrak erlijioso bat kontsideratzen zuen buruko zapi islamiarra janztea. 1998. urtean Istanbuluko Unibertsitateko arau-zirkular batek unibertsitate klaseetan eta azterketetan buruko zapia eramatea debekatu zuen, eta eskatzailea honen aurka azaldu zen - Istanbulko Unibertsitatean medikuntza ikasten ari zen garai hartan-. Bere ikasketak Austrian (Vienan) amaitu behar izan zituen.

Auzitegiak argudiatu zuen ez zela 9. artikulua bortxaketarik egon Turkiaren partetik bazegoelako debeku hori jasotzen zuen “lege” bat; arau batek adierazten zuen unibertsitatetan zapia eramatea konstituzioaren kontrakoa zela; eta auzitegiaren begitan Sahin andereak unibertsitate sartzeko orduan jakin beharko luke ezin zuela hura jantzi. Estatuaren hautemate marjinari dagokionez, Auzitegiak baieztatzen du

⁴⁶*Dahlab v. Switzerland*, 2001, ECHR, no. 42393/98, https://www.rewi.huberlin.de/de/lf/l/bae/w/files/1_adr/dahlab_echr_2001_4239398.pdf (azken kontsulta 2021/06/13).

⁴⁷*Case of Leyla Şahin v. Turkey* (Application no. 44774/98) <http://hudoc.echr.coe.int/tur?i=001-70956> (azken kontsulta 2021/06/13).

debekua beharrezkotzat jo daitekeela 9.2 artikuluari jarraiki, bereziki kontuan hartzen bada, hirugarrenen eskubideen errespetuaren baitan, zapi horrek erlijiodunak ez diren ikasleengan izan dezakeen inpaktua.

3.1.3 *DOGRU ETA KERVANCI V. FRANCE*; 2008ko abenduaren 4

Eskatzaileak⁴⁸, biak musulmanak, 1998-1999 urtetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. urtean aurkitzen ziren. Behin baino gehiagotan euren buruko zapia jantzita aurkeztu ziren soinketa klaseetara, eta kentzeko aginduei ez zieten men egiten. Eskolako diziplina komiteak erabaki zuen biak eskolatik kanporatzea. Erabaki honen aurrean, gurasoek GEEA-n amaitu zuen prozesu judizialari ekin zioten.

Auzitegiak ez zuen 9.artikuluko bortxaketarik topatu ez batean ez bestean. Kasua aztertzerakoan ondorioztatu zuen - auzitegi nazionalen antzera- buruko zapiaren erabilera ez datorrela bat kirol klaseetarako, eta beraz, hura kentzeko agindua ikasleen osasun edota segurtasunean oinarritzea zentzuri baduela. Kanporaketari dagokionez dio, eskolako arauen baitan kokatzen den aurrez jakinarazitako santzio bat dela, eta ez duela erlijo askatasunekin zerikusirik.

3.1.4 *AHMET ARSLAN AND OTHERS V. TURKEY*; 2010ko otsailak 23

Aczikendi tarikaty talde erlijiosoko 127 kidek tarteratzen duten eskaera, zeinaren bidez salatzen dute 1997an kondenatuak izan zirela euren taldearen jantzi bereizgarria kalean eramateagatik. Jantzi bereizgarri horren konposaketa hurrengoa da: turbante bat, praka zabalak eta makil bat⁴⁹.

Auzitegiak 9. artikuluaurren urraketa bat eman zela adierazi zuen, batik bat ez zuelako

⁴⁸*Case of Dogru v. France* (Application no. 27058/05) www.shorturl.at/uCJY9 (azken kontsulta 2021/06/13)

⁴⁹Application no.31320/02 by Mehmet Reşit Arslan against Turkey <https://es.scribd.com/document/506973254/Ahmet-Arslan-and-Others-v-Turkey> (azken kontsulta 2021/06/13)

ebidentziarik topatu norbanako horiek segurtasun publikoarekiko mehatxu bat zirela edo proselitismo jarrera izan zutela kontsideratzeko.

3.1.5 *S.A.S V. FRANCE*; 2014ko ekainaren 26

Kasu⁵⁰ honetan Frantziako 2011ko apirilaren 11ko legea ekartzen da Auzitegiaren aurrera, lege horrek aurpegia estaltzen duten burukoen erabilera debekatzen baitu leku publikoetan. Eskatzaileak- musulmana dena- buruko mota hori batzuetan erabiltzen ez bazuen ere, berak jantzi nahi zuenetan horretarako aukera kentzea bere askatasun erlijosoaren kontrakotzat jotzen du.

Auzitegiak ez du ez 8. artikulua ez 9. artikulua bortxaketarik topatzen. Elkarbizitzaren argudioa erabiltzen du araua zilegitzat jotzearren; eta gainera neurri hori Estatuaren apreziazio marjinean kokatzen dela adierazi zuen. Hari beretik, 14 . artikulua errespetatu zela kontsideratu zuen.

3.1.6 *LACHIRI V. BELGIQUE*. 2018ko irailak 18

Auzi honetan⁵¹, hijab⁵²-a eramateagatik Belgikako auzitegi batetik kanporatua izan zen emakume bat dugu eskatzaile gisa. Salatzen duena da kanporaketa horrek bere erlijio askatasuna bortxatu zuela.

Auzitegiak iritzi zuen Konbentzioko 9. artikuloko urraketa bat eman zela. Irizpide zehatz bat aldarrikatzen du: Neurri murriztatea jasan duena hiritar arrunt bat dela, Estatuaren izenean jarduten ez duena, alegia. Bestetik, murrizketaren xedea - ordena publikoa bermatzea- zilegia bazen ere, emakumeak adierazitako jarrera baketsua izanik, ez du neurri hori beharrezkotzat jotzen. Premiazko behar sozialaren faltan, Lachiri

⁵⁰ *Case of S.A.S. v. France* (Application no. 43835/11) www.shorturl.at/anzJY (azken kontsulta 2021/06/13)

⁵¹ *Affaire Lachiri c. Belgique* (Requête no 3413/09) <http://hudoc.echr.coe.int/eng?i=001-186245> (azken kontsulta 2021/06/13.)

⁵² *Hijab* hitza, adiera ezberdinak baditu ere, oro har emakume musulmanek euren burua estaltzeko erabiltzen duten zapiarekin lotzen da; aurpegia agerian uzten duen zapia, hain zuzen.

anderearen askatasun erlijosoa - bere erlijioa aldarrikatzeko eskubidea, batik bat- urratu zela ebatzi zuen.

3.2 IRIZPIDEEN APLIKAZIOA GIZA ESKUBIDEEN EUROPAKO AUZITEGIAREN JURISPRUDENTZIAREN BAITAN

3.2.1 LEGEAK AURREIKUSITA

Hau da 9.2. artikuluetatik⁵³ irizpide “ objektiboena” kontsideratu litekeena, eta hortaz betetzen den edo ez jakiten errazena izan beharko lukeena. Bestalde, honen gainean ere interpretazio ezberdinak egiten dituzte Konbentzioak eta Estatuek, horregatik komenigarria da zehaztea zein den Konbentzioaren argitan irizpide honek barneratzen dituen betebeharrak. Auzitegiko jurisprudentziaren arabera, “ legeak aurreikusita” adierazpenak autoritate nazionales - euren hautemate marjinaren baitan- interes publikoarentzat kaltegarriak diren jarduerak debeakatzeko duten eskuduntza barneratzen du.

Era berean, Auzitegiak hainbat ebazpenetan zehaztu du Konbentzioaren⁵⁴ “ legeak aurreikusirik” kontzeptuaren baitan “lege” hitzak esan nahi duena:

(1) “Lege” hitzak ez du soilik lege idatzia barneratzen baizik eta idatzi gabeko zuzenbidea ere hartzen du kontutan, “*common law*” sistema judizialarekiko hurbilketa eginez. Izan ere argudiatzen du, Konbentzioaren legegilearen borondatearen kontrakoa litzatekela “ legeak aurreikusirik” soilik zuzenbide zibilatzaletako sistema barneratzen duela kontsideratzea⁵⁵.

(2) Konbentzioak legea bere zentzu zabalenean barneratzen du; ez du legegileak onartutako legediaren sinonimotzat jotzen, aratago doa eta kontzeptu hori Estatuko

⁵³Ebazpen originaletan “*prescribed by law*” edo “*prévue par la loi*” esapideak erabiltzen dira, ingelesez eta frantsesez, hurrenez hurren.

⁵⁴*Kokkinakis, §40, §41*.

⁵⁵*The Sunday Times v. United Kingdom*, 1979 apirilak 26koa, § 47.

barne zuzenbidearen parekoa dela dio Auzitegiak⁵⁶.

(3) Benetan esentziala den bakarra da, murrizketa aurreikusten duen araua segurtasun juridikoarekin bat etortzea. Beraz, arau batek Konbentzioaren “ lege” nozioaren baitan kokatu dadin bi baldintza bete behar ditu: eskuragarritasuna eta aurreikusgarritasuna. Hau da, hirritarrek arau hori erraz ezagutzeko eskuragarria izan behar du, eta praktika edo jarrera jakinak izan ditzakeen ondorioak aurreikusi ahal beharko dira.⁵⁷

Aipatutako kasu guztietan berresten da Auzitegiaren ikuspuntu hau, baina aipagarriak dira Leyla Sahin v. Turkia eta Dogru eta Kervanci v. Frantzia kasuetan- legeak aurreikusirik baldintza betetzen delako ikuskaritzan- adierazitako argudioak.

3.2.1.1 LEYLA SAHIN ETA ISTANBULEKO UNIBERTSITATEAREN ZIRKULARRA

Leyla Sahin-en kasuan, eskatzaileak argudiatzen du (1) ez zegoela lege idatzirik zeinetan debekatzen zen unibertsitatean zapi islamiarraren erabilera; ez behintzat 1998.urteko otsailaren 23an Istanbulen unibertsitateko errektoreordeak jantzi horren debekua - ikasgeletan eta azterketetan- jakinarazten zuen zirkular bat argitaratu zuen arte. (2) Onartzen du errektoretzak eta dekanotzak lege zehaztutako eskumen batzuk dituztela euren eremuaren baitan arauak garatzeko, baina eskumen horiek mugak dituztela aldarrikatzen du, eta ezarri zitzaizkion murrizpenak muga horiek gainditu zituztela. (3) Gainera salatzen du unibertsitatean zapia daramaten ikasleei santzioak ezartzea ahalbidetzen duen lege orokor baten falta⁵⁸.

Labur, Konbentzioaren argitan, “ legean aurreikusita” egon behar duelako baldintza ematen ez zela salatzen duen.

⁵⁶ *Hadjianastassiou v. Grecia* (§ 18)1992ko abenduaren 16ko ebazpenean adierazten du hau Auzitegiak, 18.paragrafoan

⁵⁷ *The Sunday Times*, §46, §47 eta §49.

⁵⁸ *Leyla Sahin*, 70., 80., eta 81. paragrafoetan adierazten dira hiru argudio hauek hurrenez hurren.

Giza Eskubideen Europako Auzitegiak aurrez aipaturiko jurisprudenzia berretsi zuen. Dena den, bi argudio adierazgarri baliatzen ditu Auzitegiak:

Batetik, eskatzaileak dio Turkiako Auzitegiek zirkularraren oinarri legaltzat hartzen duen legea ez dela aplikagarria ez duelako zapiaren erabilpena jasotzen. Kontran, Auzitegiak dio autoritate nazionalak direla hori berrikusteko eskumendunak⁵⁹.

Bestetik aurreikusgarritasunari dagokionez, Auzitegiak dio -1994. urtean errektoreordeak argitaratutako erreglamentu batzuetan oinarrituz⁶⁰- eskatzaileak jakin beharko lukeela zeintzuk ziren jarraitu beharreko arauak Istanbulko Unibertsitatean sartzekoan. Aipatzekoa da “erreglamentu” horietatik bat memorandum bat dela; bertan azaltzen da emaginek ezin dutela zapirik eraman lanean ari direnean praktikotasun eta osasun arazoak direla medio. Bigarrena, erreglamentu bat da; horren bidez errektoreordeak zapi islamiarrak unibertsitatean liskarrak sortu ditzakeelako kezka adierazi, eta - Istanbulko auzitegi batek emandako ebazpen bati hel eginez- jantzi erlijiosoen erabilera debekatzen du.

Beraz, “lege” noziaren interpretazio zabala egiteaz gain, Auzitegiak, batetik Estatuaren eskutan uzten du arau jakinen oinarri legala zilegia den zehazteko boterea. Kontrol hori Konbentzioak ezarritako printzipioekin bat datorren egiaztatzeke ahalegin nagia eginez. Bestetik, eskuragarritasunaren eta aurreikusgarritasunaren interpretazio oso zabala egiten du ere,: testuinguruan jarrita hobe uler daiteke, izan ere eskatzailea 1997. urtean sartu zen Istanbulko Unibertsitatean medikuntzako azken urtea egiteko. Hortaz, bera oraindik bertan aurkitzen ez zeneko errektoreorde baten kezka - printzipioz justifikatu gabea- eta ultra vires emandako ebazpen batean oinarritutako erreglamentuak ez du ez eskuragarritasunik ez aurreikusgarritasun nabarmenik. Gauzak horrela, Auzitegiak segurtasun juridikoan ere ikuspuntu oso lauso bat duela esan liteke.

⁵⁹Ikus: *Leyla Sahin* kasua, § 84; baita paragrafo horretan bertan Auzitegiak aipatzen duen *Gozelik and Others v. Poland* [GC] kasua, no. 44158/98, § 64, ECHR 2004-I)

⁶⁰*Leyla Sahin*, § 43, §45.

3.2.1.2 ERREFERENTZIA BEREZIA DOGRU ETA KERVANCI: ZAPI ISLAMIARRA SOINKETA EGITEKO TRABA

Kasu honetan Auzitegiak bertan onartzen du neurri murriztaileak eman ziren garaian ez zegoela arau bat zeinetan debekatzen zen ikasleek ezin zutela zapirik eraman soin heziketa klaseetan; izan ere -dio- neurri horien garaian, Frantziar Estatuko 2004-228 Legea, 2004ko martxoaren 15koa oraindik ez zegoen indarrean.

Frantziar estatuko auzitegiek neurri horiek justifikatu zituzten eskoletako barne arau eta zirkularretan, hurrengo argudioen baitan kokatuz eskatzaileak eskolatik kanporatu izanak: 1) Eskola- ordotara erregularri joateko betebeharra; 2) segurtasuna babeseko betebeharra; 3) soinketa klaseetan arropa aproposa janzteko beharra⁶¹.

Auzitegiak aintzat hartu zuen justifikazio hau neurriak “ legez aurreikusirik” daudela ebazteko⁶².

Komeni da Frantziar Estatuak emandako argudio hauek banan banan aztertzea kasuko egitatei erreparatuz. Hasteko, kasuaren baitan ez da inongo puntutan adierazten eskatzaileek ez zermatenik kirola egiteko arropa aproposa - mugikortasuna ahalbidetzen duen arropa, alegia- , zapia zeramatela salatzen da soilik, eta ez da definitzen edota azaltzen zergatik den zapia traba bat soinketa egin ahal izateko. Era berean, segurtasunari dagokionez, autoritate nazionalek buruko zapia heltzeko orratzak aipatzen dituzte traba nagusizat, baina GEEA-k ahaztu egiten du, edo ez du aintzat hartzen eskatzaileek beste alternatiba batzuk - txapelak, buruko zintak, orratzak ez erabiltzea etab- eman zituztela. Azkenik, eskatzaileek soin heziketa klasetara hasieran behizat joaten ziren, beste gauza bat da eskolak bere irizpideen defentsan ikasle horien parte hartzeari uko egin izana zapia zeramatena bitartean; ezbetetze horren pixu osoa eskatzaileen baitan kokatzea ez dirudi ez zentzuduna ez bidezkoa.

⁶¹ *Dogru v. France* §50., § 51.

⁶² *Dogru v. France* §54; baita *Leyla Sahin v. Turkey*, §94.

Labur, ondorioztatu daitekeena da, Auzitegiak “lege” hitzaren zabaltasuna berretsi ez ezik, neurri murriztailea hartzen duen instituzioaren barne araei zilegitasun osoa ematen diela, azalpen edo justifikazio askorik galdatu gabe. Sinesgarritasunari dagokionez ere, kasu honetan, neurri hartzaileen hitza gailendu da euren askatasun elrijioa murriztuta ikusi dutenen bertsioarekiko. Galdera da, horren interpretazio zabala egiten badu Auzitegiak, eta neurriek oinarri legala duten edo ez erabakitzearen eskumena ere autoritate nazionaleri egokitzen badie, ez ahal da bere ikuskaritza funtzioa hein batean antzuten ari?

3.2.2 HELBURU ZILEGIA ETA PREMIA SOZIAL LARRIA

Termino hauek nabarmen abstraktuak dira, ostean normala da kontzeptu anitz barneratzea euren baitan. Bestalde, segurtasun-juridikoaren mesedetan, galdagarria da baldintza hauek praktikan galdatzen dutena finkatzea. Zaila da baina, segidan ikusiko den moduan, Auzitegiaren hari zuzentzailea zein den jakitea, kontraesanak eta lausotasunak gailentzen baitira -eskuartean dugun gaian bederen- Auzitegiaren ebazpenetan.

3.2.2.1 SEGURTASUN PUBLIKOA ETA OSASUNA

Auzitegiak segurtasun publikoa aldarrikatu du behin baino gehiagotan erlijio askatasunarekiko Estatuek egindako zenbait murrizketa zilegitzat jotzeko orduan^{63 64 65}.

Honen inguruko jurisprudentzia argi bat ezarri zuen ebazpen azpimarragarri bat *Mann*

⁶³ *Phull v. Frantzia* kasuan Sikh gizon batek aireportu bateko kontrolaren testuinguruan bere turbantea kentzeko agindua betetzeari uko egin zion, bere erlijioak agintzen duenarekin bat ez zetorrela argudiatuz. Ebazpen osoa eskuragari hurrengo estekan: www.shorturl.at/yILNZ

⁶⁴ *Morsil v. France* kasuan, Marokon zegoelarik emakume musulman bat Frantziako kontsulatutik kanporatua izan zen zapikoa zeramalakoa. Ebazpena eskuragai: www.shorturl.at/ixGKY

⁶⁵ *Karaduman v. Turkey* kasuan hainbat neskatxa musulmanek ezin izan zuten unibertsitateko diploma jaso, identifikazio argazkian zapikoa kentzea derrigorrezkoa zelako. Eskuragai: <https://lovdata.no/static/EMDN/emd-1990-016278.pdf>

*Singh v. France*⁶⁶ auzia da. Honetan, Sikh gizon bati gidatzeko baimenaren kopia ezeztatu zitzaion ez baitzuen bere turbantea kendu nahi identifikazio argazkia ateratzeko. Auzitegiak ez zuen 9.artikulua urratu zenik kontsideratu, segurtasun publikoa bermatzearen beharrezko neurritzat jo zuen. Bestalde, Mann Singh jaunak, GEEAren ebazpenarekin konforme geratu ez, eta Nazio Batuen Giza Eskubideen Komisionan tarteratu zuen bere eskaera. Komiteak, GEEAren kontrako norantza juridikoa hartu zuean, bere aburuzu pertsona bat arazorik gabe identifikatu daiteke buruan turbante bat izanda ere. Are gehiago, egurekotasunean turbantea daramala aintzat hartuta, argazkian turbantea eramateak identifikazioa errazten duela deritzo. Fondoaren kontrako iritzia agertu ez ezik, Komisionak nabarmendu zuen Frantziak ez zuela arrazoitu zergatik kaltetzen zuen aurpegia estaltzen ez zuen turbante batek segurtasun publikoa. Horrela bada, Frantziar estatua kondenatu zue Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituneko 18. Artikulua - erlijio askatasuna aldarrikatze eskubidea- urratzeagatik.

Agian Komitearen ikuspuntu hori aintzat hartuta aldatu zuen Auzitegiak bere jarrera, izan ere, *Lachiri v. Belgium* auziaren baitan, Auzitegiak iritzi zuen zapi islamiarra Auzitegietan debekatzen zuen araua ez zela beharrezkoa segurtasun publikoari dagokionez. Azpimarratu zuen soilik justifikatu daitekela jantzi horren erabilpena baldin eta mehatxu orokor bat suposatzen badu segurtasun publikoarekiko. Belgikak kale egin zuen mehatxu hori frogatzerako orduan, ez baitzuen hori erakusten zuen ebidentziarik aurkeztu, eta Auzitegiak eskatzailearen alde ebatzi zuen kasua. Ebazpen honen bidez Auzitegiak, bere jurisprudentziak aurrez hartutako bestelako norantza bat hartuz, Estatuaren apreziazio marjina zedarritu zuen.⁶⁷

Dena den, *Belcacemi and Oussar v. Belgium*⁶⁸ eta *Dakir v. Belgium*⁶⁹ auzietan, espazio publikoetan aurpegia estaltzea debekatzen duen legearen harira - 2011ko ekainaren 1ko Legea- Auzitegiak *niqab*-a⁷⁰ erabiltzen duten bi emakumei ezarritako santzioak onesten

⁶⁶ *Mann Singh v. France*, ebazpen osoa eskuragai hurrengo estekan: www.shorturl.at/iAKUW

⁶⁷ *Lachiri v. Belgium* §§39-48.

⁶⁸ *Belcacemi and Oussar v. Belgium*, no. 37798/13, 11 July 2017

⁶⁹ *Dakir v. Belgium*, no. 4619/12, 11 July 2017.

⁷⁰ *Niqab*-a aurpegia estaltzen duen belo bat da, emakume musulman batzuek beren soinekoaren zati

ditu. Elkarbizitza baketsua, hirugarrenen eskubideen errespetua eta segurtasuna argudio izanik, beharrezko premia sozialaren irizpidea ematen dela adierazten du. Ez du bada *-Lachiri v. Belgium* auzian finkatutako irizpidea ahaztuz- mehatxu orokor hori nola ematen den frogatzeko ebidentziarik galdatzen.

Horrela bada, ez da argi geratzen zertan oinarrituz kontsideratu behar den burukoa edo belo integrala eramateak segurtasun eta osasun publikoak erasotzen dituztela. Ez eta Estatuak arrisku hori egon badagoela frogatzeko ebidentziak aurkeztea ezinbestekoa den. Are nahasgarriagoa da kontuan hartzen badugu, *Ahmet Arslan and Others v. Turkey* kasuan, eskatzaileek makil bat eraman eta Turkiako autoritateek talde arriskutsu kontsideratzen zituzten arren, Auzitegiak ez zuela iritzi helburu zilegiren bat zegoenik jantzi hori eramatea debekatzeko.

3.2.2.2 GENERO BERDINTASUNA

Leyla Sahin v. Turkey kasuan GEEAk adierazi zuen genero berdintasuna Konbentzioaren baitan aurkitzen den printzipio nagusi bat dela⁷¹; nolabait buruko zapi islamarra printzipio horren kontrakoa dela iradokiz, edo behintzat Konbentzioan onartutako eskubideen arteko talka bat eman daitekela adieraziz. Izan ere, kasu horren testuinguruan adierazpen horiek erabiltzen ditu Auzitegiak Turkiaren legea - 1998ko zirkularra Unibertsitatetan burukoaren erabilera debekatzen duena- zilegia dela justifikatzeko.⁷²

Dahlab kasuan⁷³, Auzitegiak dio Islamiar buruko zapiaren eta bestelako ikur erlijiosoaren erabilera sexuan oinarritutako diskriminazio bat suposatzen zutela, zehazki Auzitegiarentzat “ emakumeei inposatutako agindu bat dela dirudi...eta hortaz... nekez bat etorri daitekela genero berdintasunaren printzipioarekin”. Bestalde, ez du

gisa erabiltzen dutena; "belo integral" izenaz ezagutzen da ere.

⁷¹Ikus:Leyla Sahin v. Turkey §115.Ikusi ere: Abdulaziz, Cabales and Balkandali v. the United Kingdom, § 78; Schuler-Zraggen v. Switzerland, 1993ko ekainaren 24an ebatzia.

⁷²ODEH, L.A., "Post-Colonial Feminism and the Veil : Thinking the Difference". *Feminist Review* 46^o, 1993ko martxoaren batean argitaratua.Liburukia: 43 issue, 1. 26-37 orr-ak.

⁷³*Dahlab v. Switzerland* 7. orria (ez onartze adierazpena)

argudio horren azalpenean sakontzen, ez du adierazten zehazki zer jotzen den genero berdintasunaren kontrakotzat (izan ere, printzipio hau ez da Konbentzioaren 9.2 artikulua irizpideen artean barneratzen, ez azaltzen), beraz komenigarria liteke azaltzea zein modutan barneratzen den printzipio hau 9.2 xedapenaren baitan, eta, era berean, zapi islamiarraren erabilerak nola eta zergatik urratzen duen hura. Ondo justifiaktu beharreko adierazpenak dira hauek, batez ere aintzat hartzen bada emakume baten erlijio askatasunarekiko murriztapen baten gaineko auzi bat dela, eta Auzitegiak kasua onartezintzat jo zuela.

Auzitegiak kritika zorrotzak jasan zituen Leyla Sahin kasuan ez zuelako aintzat hartu Turkiako testuinguruan - herritarren gehiengo zabala musulmana da- horrelako erabaki bat hartzeak milaka emakumeren hezkuntza eskubidea kolokan jartzea suposatu lezakelako. Modu horretan, herrialde horretan genero berdintasuna sustatu baino, emakumeen hezkuntzarekiko kaltegarriak diren ondorioak eragin zituen.

Auzitegiak galdatzaileak zapiaren erabileran duen pertzepzioa baztertu zuen auresuposatu zuelako “praktika pratiarkal eta zapaltzailea” dela, zeinak emakuearen erresignazioa irudikatzen duen gizonarekiko. Bestalde, Tulkens (Leyla Sahin) epaileak bere boto partikularrean salatu zuen ez zegoela loturarik genero berdintasunaren eta zapiaren debekuaren artean. Bide batez, arrazoitu zuen ez zela Auzitegiaren zeregina erlijio baten ebaliazioa edo bere praktiken inguruko irizpenak egitea. Azken argudio horrek badu garrantzia, izan ere, arrazoiketa berri bat mahaiganeratzeaz baino, Auzitegiaren jurisprudentziak berak aldarrikatzen duen printzipio bat da⁷⁴. Era berean, ikuskera eurozentrikoa da Auzitegiak ebazpenean azaldutakoa, ekialdeko kulturen gaineko ezjakintasuna eta urrunkera bistaratuz; eta hortaz, beren herritarren eskubide eta askatasunen babesa nolabait herren uzten duena.⁷⁵

⁷⁴Ikus: *Manoussakis and Others v. Greece*, 26 September 1996, § 47 ; *Hasan and Chaush v. Bulgaria* [GC], no. 30985/96, § 78 ; *Refah Partisi (the Welfare Party) and Others v. Turkey* [GC], nos. 41340/98, 41342/98, 41343/98 and 41344/98, § 91; *Leyla Sahin v. Turkey* § 47 ; *S.A.S v. France* § 127

⁷⁵RADICIC, I., “Gender Equality Jurisprudence of the European Court of Human Rights”. *European Journal of International Law*, 19 bol., 4. Zbk. 841- 847. orr.-ak ; Ikus ere: STUART, A., “Freedom of Religion and Gender Equality: Inclusive or Exclusive?”. *Human Rights Law Review*, 10. Zbk, 2010. 429-436 orr.-ak.

S.A.S v. France kasuan burkaren erabilera da Auzitegiaren aurrera eramandakoa. Ez zuen 9. artikuluaen bortxaketarik topatu⁷⁶, baina argudiaketa bere aurreko jurisprudentziatik apur bat aldendu zen. Dahlab kasuan adierazitakoaren hildo beretik, burkaren erabilera, izatez, berdintasun horren kontrakoa dela adierazi zuen; bestalde, aurreko kasu horretan heldutakoaren kontra eginez, salatu zuen“ Estatu batek ezin duela genero berdintasunaren aldarrikapena erabili emakume batek bere erlijio askatasunaren baitan defendatzen duen praktika bat debekatzeko” . Beraz, kasu honetan, Auzitegiak ez zuen galdatzailearen erabakiaren inguruko irizpenik egin, bere aurreko ebazpenetan adierazitakoa kontraesanez⁷⁷.

3.2.2.3 SEKULARTASUNA-NEUTRALITASUNA ANIZTASUNA-TOLERANTZIA

ETA

Sekulartasuna eta neutraltasunaren betebeharra da Estatuak zapi islamiararen erabileran murriztapenak justifikatzeko aldarrikatu ohi duten hastapen bat. Frantziak zein Turkiak adierazi izan dute zapiaren erabilarera murriztea ezinbestekoa dela (Estatuaren oinarritzko printzipio den) sekulartasuna babestearren. Alemaniak⁷⁸, bere aldetik, murrizketa horiek justifikatu ditu neutraltasunaren izenean⁷⁹. Eta Auzitegiak, justifikaizo horiek onartu izan ditu, esaterako Leyla Sahin kasuan galdatzailearen zapia Estatuaren sekulartasunaren kontrakoa zelako ideari eusterakoan. Zoritxarrez Auzitegiak, ez du azaltzen zein modutan jartzen duen kolokan - edo erasotu dezakeen zapiaren erabilerak Estatuaren sekulartasuna. Izan ere, kasu horrtean ez zegoen inongo ebidentziarik galdatzaileak berak edo zapiaren erabilerak unibertsitatetan desordena eta istiluak sustatzera zeramatela bistarantzen zuenik. Hortaz, Auzitegiak egindako adierazpenen oinarriaren faltan, zaila da jakitea debeku horrek proportzionaltasun printzipioa jarraitzen duen. GEEAk ontzat eman zuen Estatuaren debekua -

⁷⁶*S.A.S v. France*, §§144-59 .

⁷⁷SCHUON, F., “The Mystery of the Veil”. *Studies in Comparative Religion*, 11 bol, 2. zbk, 1977.1-15 orr.-ak

⁷⁸*Ferestha Ludin* kasua Alemaniako Auzitegi Konstituzionalaren aurrean (2003. urtea).

⁷⁹FRAILE ORTÍZ, M., “The Islamic Headscarf: Does Context Matter?”. *DRET*, bol. 3, 2008. Onlineargitalpena:[http://ssrn.com/abstract=\[1370860\]](http://ssrn.com/abstract=[1370860]) (azken kontsulta:2021/06/14)

unibertsitatetan zapi islamiarra janztearen debekua- bere sekulartasuna babestearen argudiopean, horretarako behar bat bazegoelako ideia barnertatuz⁸⁰.

Zapiaren gaian eman den beste justifikazio garrantzitsu bat da honen erabilerak, aniztasunaren eta tolerantziaren printzipioak indargabetzen dituela diona. Hau da, hirugarren pertsonen eskubide eta askatasunekiko eraso bat dela dioen argudioa. Hots, Dahlab kasuan, Auzitegiak mantentzen du “ageriko ikur poteretsu”⁸¹, azpimarratzen du gainera - kasu horren eskatzailearen kasuari helduz - umeengan proselitismo efektu bat eragin dezakeela. Era berean, Leyla Sahin-en ebazpenean azaltzen du, aniztasunaren baloreak aintzat hartuz gero, autoritate nazionalek hartutako neurri murriztaileak justifika daitezkeela. Kontran, Lautsi eta beste batzuk v. Italia ebazpenean oso bestelako jarrera eta azalpen bat hartzen du ikur erlijiosoek arlo akademikoan izan dezaketenean efektuarekiko.

Puntu honetan komeni da aipatutako azken kasu horren nondik-norakoak aipatzea, izan ere, Auzitegiak kasua erabaki behar izan zuen garaian izugarritzko arreta eta polemikaz bustita agertu zen. Baita modu nabarmenean ikusten delako Estatu batzuek oraindik lotura estua dutela eliza katolikoarekin, eta hori Auzitegiak irizpideak aplikatzeko duen jarrera motan islatzen dela.

Lautsi and others v. Italy ; 2011-ko Martxoak 18 (Sala Nagusia)⁸³.

Kasu honetan, galdatzaileen seme-alabak eskola publiko batean ikasten zuten. Italiako gainerako eskola publikoen antzera, derrigorrez gurutze bat zuten ikasgela guztiek paretan zintzilik. Lautsi anderearen aburuz, ezinbestean ikasgeletan gurutze bat egon

⁸⁰HANG, C., "Headscarf debate in Germany: Taking it off or putting it on?". *European Academy on Religion and Society*, 2021 urtarrilak 1 (azken kontsulta:2021/06/14). Eskuragarri: <https://europeanacademyofreligionandsociety.com/news/headscarf-debate-in-germany-taking-it-off-or-putting-it-on/>.

⁸¹*Dahlab v. Switzerland*, 10. orria: “ (...) a particular religion was manifested by a powerful religious symbol, such as the wearing of an Islamic headscarf” bat den heienan zapi islamiarra nekez bat etorri daiteke tolerantzia printzipioarekin⁸².

⁸³Ebazpen osoa hemen eskuragai: Asunto Lautsi y Otros c. Italia <http://hudoc.echr.coe.int/fre?i=001-139380> (azken kontsulta 2021/06/13)

behar izateak ez zuen sekularizazio printzipioa errespetatzen. Lehenik eskolan mahaigaineratu zuen kezka hori, gurutzeak kentzea eskatuz. Eskolako zuzendariak ez zuenez eskaera onartu salaketa administratibo bat egin zuen. Salaketa administratiboa ez ezik, prozesu judizialak ere arrazoia ematen ez ziola ikusirik, GEEAren aurrera eramanean zuen eskola publikoetako ikasgeletan gurutzeak ezinbestez egon behar duelako araua. Horrek Konbentzioaren 9. eta Lehenengo Protokoloaren 2. (euren seme-alaben hezkuntzarako gurasoek duten eskubidea) artikulua bortxatzen zuela aldarrikatuz.

GEEAko Sala Nagusiak plazaratutako ebazpenean kontsideratu zuen ez dela 2. ez 9. artikuluen bortxaketarik eman. Bere aburuz, ikasgeletan ikur erlijiosoak egotearen auzia, printzipioz, Estatuaren apreziazio marjinaren baitan kokatzen da; bereziki kontuan hartzen bada ez dagoela doktrina bateratu edo adostasun bat Europako marko legalean horren inguruko hastapenik ematen duenik. Auzitegiak ez zuen adoktrinamendu zantzurik ikusi. Areago, gurutzeen presentzia ez zuen Kristatutasunaren irakaskuntza behartuarekin erlazioantu. Eta ez du inola ere ez aipatzen Estatu Italiarraren erabaki horiek beste erlijo bateko ikasleekiko edo sinesmen bat jarraitzen ez duten horiekiko intolerantzia posibleaz.

Lautsiren kasuan, Auzitegiak gurutzea “ izatez pasiboa den ikur”⁸⁴ gisa definitzen du, eta beraz ez du uste ikasleak -8 eta 12 urte bitarteko adingabeak- adoktrinatzeko botererik duenik; modu berean, ez dio proselitismo efekturik leporatzen.

Auzitegiak dena den, ez du modu argian definitzen “ ikur pasibo” kontzeptua. Ezta zergatik izan daitezken adoktrinatuak 4-8 urteko umeak Dahlab anderearen zapikoaren ondorioz⁸⁵, baina ez Italiar eskola publikoetako 8-12ko ikasleak euren ikasgeletan ezinbestez gurutz batek egon behar duenean⁸⁶.

⁸⁴*Lautsi and others v. Italy* § 7

⁸⁵*Dahlab v. Switzerland*, 10. orria.

⁸⁶*Lautsi and others v. Italy* § 55

3.2.2.4 EREMU PUBLIKO ETA EREMU PRIBATUAREN IRIZPIDEA

Auziaren egitateak azaltzerakoan esan bezala, Ahmet Arslan eta beste batzuk v. Turkey auzian eskatzaileak Aczimendi Tankar komunitate islamiarreko kideak dira, eta euren fedea agintzen duenarekin bat datozen arropak eramateagatik atxilotuak izan ziren, sekulartasunaren babesean oinarriturik. Auzitegiak aldiz, ez zuen kontsideratu neurri hori beharrezkoa zenik Estatuaren sekulartasuna babestu ahal izateko⁸⁷. Ez zuen ezta proselitismo edo bestelakoren zantzurik topatu. Eta beraz, ez zuen Turkiaren murrizketa zilegitzat jo. Eratorri daiteke, espazio publikoetan jantzi erlijiosoak eramatea ezin dela proselitismo kontsideratu, baina, eremu pribatuan aldiz - gogoratu Leyla Sahin kasua, Estatu berean emandakoa- bai.

Ildo beretik komeni da aipatzea, *Eweida v. Great Britain* kasuan, Auzitegiak esaten duela erakunde edo enpresa pribatuek neutraltasuna gordetzeko izan dezaketen nahia ez dela argudio nahikoa ikur erlijioso baten erabilpena debekatzeko⁸⁸. Nolabait adieraziz eremu pribatuan ere Konbentzioko 9.2 artikulua irizpideak jarraitu behar direla ikur erlijiosoak erabiltzea debekatu ahal izateko. Dena den, Leyla-ren kasuarekin alderatuz, Auzitegiak ez du azaltzen efektuei dagokionez zertan ezberdintzen den Unibertsitate batek neutraltasuna mantentzeko izan dezakeen nahia eta enpresararena.

⁸⁷ *Ahmet Arslan and others v. Turkey* § 33

⁸⁸ *Case of Eweida and Others v. The United Kingdom*⁸⁹ (Applications nos. 48420/10, 59842/10, 51671/10 and 36516/10). Ebazpen osoa hemen eskuragarri: <http://hudoc.echr.coe.int/fre?i=001-115881>

4 ONDORIOAK

Hasiera batean azaldu den lez, gradu amaierako lan honen aztergaietan bi atal nagusi bereizi ditzakegu, batetik askatasun erlijiosoaren bermean Europako Giza Eskubideen Hitzarmenak ezartzen dituen irizpide eta baldintzak - askatasunaren marko teorikoa- eta bestetik Auzitegiak kasuz kasu egiten duen interpretazioa eta aplikazioa - bermearen hedadura materiala-. Lanean ordea ez da erlijio askatasuna eskubide abstraktu gisa aztertu, gutxiengo zehatz baten eta erlijio adierazpen konkretu batetara mugatu baizik; Europan, hiritar musulmanek euren jantzi eta ikur erlijiosoen adierazpenean jasan dituzten neurri nazional murriztaileei Giza Eskubideen Europako Auzitegiak eman dien erantzuna aztertu da, alegia. Eta era berean, Auzitegiak Konbentzioak ezartzen dituen bermeen aplikazioak efektibotasunik eta argitasunik baduen aztertu da. Hala bada, atalak bata bestearen argitan ikusiz gero ondorio ugari atera daitezke.

4.1 NORAINO HELTZEN DA AUZITEGIAK IKUR ETA JANTZI ISLAMIARREN ADIERAZPENARI EMATEN DION BABESA?

Idazlanaren hirugarren puntuan (3.2.gehien bat) egindako behaketa oinarri izanik, dagokigun aztergaiaren kasuan Auzitegiak 9.2. artikulua nola interpretatzen duen ondoriozta liteke.

Auzitegiak epai guztietan banan-banan aztertzen ditu askatasun erlijiosoa mugatu ahal izateko bete beharrezko hiru baldintzak, eta horien argudiaketa egiten du ondoren hartuko duen iriztapena ulergarria izan dadin. Hala eta guztiz ere, Auzitegiak askotan kale egin du muga horiek ezarri ahal izateko behar diren egoera eta baldintza zehatzen egiazkotasuna ziurtatzerako orduan⁹⁰. Beste hitz batzuetan, zenbait kasutan Estatuek -neurri murriztaileak justifikatzeko- erabilitako argudioak egiazkotzat jo ditu behar bezala frogatu gabe⁹¹. Gogora ekarri behar da zuhurtzia falta hori ez dela soilik pertsona partikularren kritiken bitartez salatua, baizik eta -Mann Sign-en kasuan azaldu

⁹⁰Gogora ekarri 3.2.2 puntua; bereziki *Mann Sign v. France* eta *Dakir, Belcacemi eta Oussar v. Belgium* kasuak

⁹¹Ikus: *Leyla Sahin v. Turkey*, § 115; *Dahlab v. Switzerland* 7. orria (ez onartze adierazpena).

den moduan- Nazio Batuen Giza Eskubideen Komiteak ere nabarmendu duela⁹². Egitate honek, neurri murriztaileak jasan dituzten pertsona horien eskubide eta askatasunak behar den diligentziaz bermatzea eragozteaz aparte, herritarrengan Auzitegiarekiko mesfidantza sorrarazi dezake.

Aldi berean, GEEK 9. artikuluko horretan aipatzen diren kontzeptuen abstrakzioak ez dio mesederik egiten askatasun hori modu egokian bermatu ahal izateari. Segurtasun publikoa, ordena publikoa, moralak, osasuna eta hirugarrenen eskubideak bezalako terminoak zer esan nahi duten jakin badakigu, baina Estatuak behin baino gehiagotan ezkutatu dira euren zabaltasunean eta konplexutasunean neurri eta lege murriztaileen garapena justifikatzeko. Argi dago Auzitegiak ez duela horiek kaltetuak izan daitezkeen eman beharreko baldintzak zein diren azaldu nahi izan, edo askatasunen eta horien arteko oreka lortzeko irizpide zehatz batzuk ezarri nahi izan; batik bat - lan ikaragarri zail bat izateaz aparte- kasuz kasuzko azterketa beharrezkotzat jotzen duelako - *mutatis mutandis* irizpideari eutsiz-. Horren adibide da legez aurreikusirik - printzipioz irizpideetatik adiera hertsia duen bakarra izanik- mugarekiko egiten duen interpretazio zabala.

Pixuzko arrazoi bat izan badaiteke ere, Auzitegiak ez du termino horien interpretazio bateratu bat egin ahal izateko hastapenik eman. Irizpideen aplikazioaren azterketa⁹³eginda ere, ez da bat ere argi geratzen noiz izan daitekeen beharrezko eta beraz zielagia musulmanen ikur eta jantziak mugatzea.

Aipatzekoa da kontraesanen eta norantza juridiko argi baten hutsunean bi direla kaltetuak: 1) Euren eskubide eta askatasunak mugatuta ikusten dituzten herritarrak; 2) Segurtasun juridikoa.

⁹²Ikus: Nazio Batuen 1928/2010 komunikatua: CCPR/C/108/D/1928/2010, <https://juris.ohchr.org/Search/Details/1671> (azken kontsulta 2021/06/13).

⁹³Lanaren 3.2. atala.

4.2 ESTATU EUOPARREK IKUR ETA JANTZI ISLAMIARREN LEGEGINTZAN NORANTZA ARGI BAT IZATEKO BEHARRA

Auzitegiaren ebazpenetatik eratorzen den segurtasun falta nabarmen islatuta geratu da Europako Estatuak gai honen gainean duten legedia aniztasunean. Auzitegiak berak behin baino gehiagotan adierazi du Europan ez dagoela adostasunik praktika hauek juridikoki kudeatzeko⁹⁴.

Agerikoa da Estatu Kideetako legegileak berak ez dakiela zein puntutaraino heltzen den euren hautemate-marjina, esaterako Italiako Estatu Kontseiluak belo islamiar integrala debekatzen zituzten Dekretuak ez zilegitzat jo behar izan zituen oinarri legal faltagatik; Alemanian Bundesverfassungsgericht-ak⁹⁵ hijab-a zeraman irakasle baten kanporaketa ere ez zilegitzat jo zuen lege mailako araurik ez egoteagatik⁹⁶; baita Espainian, 2013an Auzitegi Gorenak, zenbait eraikin publikoetan aurpegia estaltzen duten jantziak debekatzen zituzten Kataluniako zenbait udal ordenantza ez zilegitzat jo zituen.⁹⁷ Oro har Europa mailan behin eta berriro mahaiganeratu den eztabaida bat da, horri lotutako lege edo auzi gatazkatsu bat atera den bakoitzean berrabiarazita ikusi den eztabaida, hain zuzen.

Europako auzitegi ezberdinen ebazpenetan ere antzeman daiteke kontsentsu falta, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak 2017. urtean enpresetan - eremu pribatuan- buruko zapiaren erabilerari mugak edo debekuak ezartzea onetsi zuen enpresak neutraltasun irudia eskeitzeko izan dezakeen interesean oinarrituta⁹⁸. Bestalde, lanean

⁹⁴Auzitegiak *S.A.S v. France*, 156. paragrafoan aipatzen du errealitate hori: “ This is particularly true as there is little common ground among the member States of the Council of Europe (see, *mutatis mutandis*, *X, Y and Z v. the United Kingdom*, 22 April 1997, § 44, *Reports 1997-II*) as to the question of the wearing of the full-face veil in public (...) The Court thus observes that (...) there is no European consensus against a ban.”

⁹⁵Alemaniko Konstituzio Auzitegia.

⁹⁶Ebazpena ingeleseko bertsioan aurki daiteke German Law Archive datu basean: BVerfGE 108, 282. Headscarf Ban (Kopftuchurteil);2016ko apirilaren 20an argitaratua.By Christof in Constitutional, Federal Constitutional Court, Judgements.© Gerhard Danemann 2015.Erabiltarri:<https://germanlawarchive.iuscomp.org/?author=1> (azken kontsulta:2021/06/14).

⁹⁷Auzitegi Gorenaren 693/2013Ebazpena,2013ko otsailaren 14koa.Erabiltarri:<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/1368319659665e6e/20130308>.

⁹⁸Ikus *Bouagnaoui/Micropoleeta Achbita/ G4S* auziak, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak (Areto Nagusia), 2017ko martxoaren 14an ebatziak.

aipatu den moduan Eweida kasuan GEEAK ez zuen argudio hori nahikotzat jo⁹⁹.

Desadostasunean konponbiderik aurkitu ordean, gizartearen bilakaera etengabearen poderioz hastapen eta balio berriak pixua hartu ahala, auzia korapiltsuagoa bihurtzen da. Horiek eragin dute argudio berriak azaleratu izana Estatu Kideen botere juridikoen zein Auzitegiaren erabakietan; esaterako genero berdintasuna edo elkarbizitzaren argudioak. Arazoa dator ez denean finkatzen kontzeptu horiek zehazki zer diren, eta noraino heldetzen den horiek errespetatzearen obligazioa. Adibidez, kontzeptu hauen irispena ez dira ez Konbentzioan ez jurisprudentzian jaso, ez eta nola barnebildu daitezkeen askatasun erlijioso mugatzeko helburu zilegietan. Horrela, Auzitegiak bere jurisprudentziagatik sakonki errotutako hastapen bat urratu du: 9.2 artikuluan zerrendatzen diren erlijio askatasuna mugatzeko helburu zilegien zerrenda zehatza eta itxia dela eta horien interpretazioak nahitaez hertsia izan behar duelako hastapena, alegia¹⁰⁰.

4.3 ISLAMAREN GAINEN IRIZPENAK ETA HORIEN ERAGINAK

Aurrekoarekin lotuta, beharrezkoa da gogora ekartzea Auzitegiak Islamaren inguruko irizpen zurrinak egin dituela Leyla Sahin, Dahlab, Dogru eta Kervanci eta beste batzuetan. Esaterako, genero berdintasunaren puntuan azaldu den moduan behin baino gehiagotan adierazi du buruko zapi islamiarraren edota belo integralaren erabilpenak emakumearen askatasuna, berdintasuna edota duintasunarekiko bateraezina zela.

Horrelako adierazpenak arriskutsuak dira, batez ere modu lauso eta orokorrean baliatzen badira, azaldu gabe zergatik kaltetzen diren balio horiek praaktika jakin horiengatik. Auzitegia gainera giza eskubideen babesle gorana den heinean - Europa mailan behintzat- Estatuentzat erreferentea da, eta beraz euren erabakietan eta legegintza prozesuetan ere irizpen horiek egitea sustatu edo behintzat ahalbidetu dezake. Horren adibide dira azken urtetan Europako Estatu ezberdinetako agintareiek

⁹⁹MAHER, J., "Eweida and Others: A New Era for Article 9?". *Comparative Law Quarterly*, 63 bol., 1. alea, 2014. 213- 215 orr-ak.

¹⁰⁰Ikus: *Svyato- Mykhaylivska Parafiya v. Ukraine*, §§ 132 and 137; *S.A.S. v. France [GC]*, § 113.

eta politikariek Islamaren jantzi edo ikurren gainean adirazpen zurrinak - eta batzuetan iraingarriak- egiteko joera; esaterako Nicolas Sarkozy-k¹⁰¹ 2011. urtean burka opresioaren ikur gisa definitu zuen; Boris Johnson-ek¹⁰² 2019. urtean burka darabilten emakumean postontzi eta banku lapurrekin konparatu zituen. Larriena da gehienetan horrelako adierazpenak gizartearen ikuspuntuaren isla izan ezik, legetan islaturik ikusten direla; esanguratsua da, besteak beste, Sarkozy-ren hitz horiek Frantziako 2011. urteko lege baten arira eman zirela, burka espazio publikoetan debekatzen zuen legea, hain zuzen. Modu horretan, GEEAren jurisprudentziak finkaturiko beste printzipio garrantzitsu bat urratzen da: Estatuaren eutraltasun beharrak galdatzen duen erlijioen gaineko eta horiek adierazteko moduen irizpenak egiteko debekua¹⁰³.

4.4 ZEIN DA AUZIAREN KONPONBIDEA AURKITZEKO BIDE ZUZENA?

Lanean zehar aipatua izan den Bepax txostenean, laizitate motak eta eliza-estatu erlazioak aztertzen dituen heienan, argi uzten du egindako ikerketaren arabera pluralitateari hobekien egokitzen zaion modeloa eta arazo gutxien ematen dituenak lege hertsakorrak ezartzen ez dituztenak direla. Bestalde, Pew Research txostenaren arabera azken urteetan Europako herrialdeetan islamaren adierazpenekiko hertsakorrak diren legediak gorakada nabarmen bat azaleratu du.

Ez dakigu zein nolako bilakaera izango duen ikur eta jantzi islamiarren auziak Europan, baina argi dagoena da argitasunik eta kontsentsurik ez dagoen bitartean auzia ez dela konpondonduko. Pew Research-en beste txosten baten arabera¹⁰⁴ herritar musulmanen kopuruak Europan nabarmen egingo du gora hurrengo urteetan, eta agerikoa da ere mugimendu, partidu politiko eta iritzi islamofoboak gora egiten ari

¹⁰¹Frantziako presidentea 2007-2012 agintaldian, UMP partidu politikoaren izenean.

¹⁰²Britania Handiko Lehen Ministroa, 2019. urtean hautatua Partidu Kontserbatzailearen izenean.

¹⁰³Ikus: *Manoussakis and Others v. Greece*, § 47; *Bayatyan v. Armenia [GC]*, § 120

¹⁰⁴Pew Research Center, Conrad Hackett. 5 facts about the Muslim population in Europe; azaroak 29, 2017 (azken kontsulta: 2021/06/14). Eskuragarri: <https://www.pewresearch.org/fact-tank/2017/11/29/5-facts-about-the-muslim-population-in-europe/> (azken kontsulta 2021/06/14)

direla¹⁰⁵. Testuinguru honetan Giza Eskubideen Europako Auzitegiak diligentzia handiagoaz jardun beharko luke bederen bere irizpideak aplikatzerako orduan kontraesanetan ez erortzearen, Europa mailan erreferentzia ulergarri bat izan dezaten, bai Estatuak eta baita herritarrek. Izan ere, horrenbeste pertsonen funtsezko eskubide batez ari garela, argitasuna da exigitzea zilegi den gutxieneko hori.

¹⁰⁵Bayrakli, E. y Hafez, F. (eds.). European Islamophobia Report, Ankara, SETA, 2019. https://www.islamophobiaeurope.com/wp-content/uploads/2019/09/EIR_2018.pdf (azken kontsulta 2021/06/14)

BIBLIOGRAFIA

ÁLVAREZ CORTINA, A., "Derecho de las confesiones religiosas a la selección del personal por las creencias". En *La jurisprudencia del Tribunal Europeo de Derechos Humanos en torno al derecho de libertad religiosa en el ámbito laboral* (ed. Motilla A.), Comares (Granada) 2016, 183-223 orr.-ak.

BARONAVSKY C., WESTER B., MITCHEL T., MAJUNDAR S., SANDSTROM A. eta VILLA V., "A closer look at changing restrictions on religion". *Pew Research Center*, 2019 uztailak 15. Erabilgarri: <https://www.pewforum.org/essay/a-closer-look-at-changing-restrictions-on-religion/>.

BAUBEROT, J., *Les laïcités dans le monde*. Presses Universitaires de France, Paris, 2010.

BAYRAKIL, E. y HAFEZ, F. (eds.). "European Islamophobia Report". *SETA*, Ankara, 2019. Erabilgarri: https://www.islamophobiaeurope.com/wp-content/uploads/2019/09/EIR_2018.pdf.

BREMS, E., "Ebrahimian v France: headscarf ban upheld for entire public sector." *The Strasbourg Observers*, 2015 azaroak 27. Eskuragarri: <https://strasbourgobservers.com/2015/11/27/ebrahimian-v-france-headscarf-ban-upheld-for-entire-public-sector/>.

CASTRO JOVER, A., "Laicidad y actividad positiva de los poderes públicos". *Revista General de Derecho Canónico y Derecho Eclesiástico del Estado* (www.iustel.com), bol.3, 2003.

CEBADA ROMERO, A., "The European Court of Human Rights and religion: Between christian neutrality and the fear of Islam". *The New Zeland journal of public and international Law*, Bill of rights anniversary special issue, bol.11, 1^o zkb, 2013

azaroa, 75-102 orr.-ak.

COOPERMAN, A., "Europe's Growing Muslim Population." *Pew Research Center*, 2017 azaroak 29. Eskuragarri: <https://www.pewforum.org/2017/11/29/europes-growing-muslim-population/> .

DENLI Ö., "Between Laicist State Ideology and Modern Public Religion: The Head-Cover Controversy in Contemporary Turkey". Lindholm T., Durham W.C., Tahzib-Lie B.G., Sewell E.A., Larsen L. (eds) *Facilitating Freedom of Religion or Belief: A Deskbook*, Springer, Dordrecht, 2004, 497-511 orr.-ak.

FERNÁNDEZ-CORONADO GONZALEZ, A., "Marco comparado de la Libertad religiosa en España". *Revista de Derecho-UNED*, bol.11, 2013, 279-316 orr.-ak.

FRAILE ORTIZ, M., "The Islamic Headscarf: Does Context Matter?". *InDret*, bol. 3, 2008. Online argitalpena: [http://ssrn.com/abstract=\[1370860\]](http://ssrn.com/abstract=[1370860]).

GAMPER, D., *Laicidad europea*. Apuntes de filosofía política postsecular, Bellaterra (Barcelona), 2016, 1-28 orr.-ak

HANG C., "Headscarf debate in Germany: Taking it off or putting it on?". *European Academy on Religion and Society*, 2021 urtarrilak 1. Eskuragarri: <https://europeanacademyofreligionandsociety.com/news/headscarf-debate-in-germany-taking-it-off-or-putting-it-on/>.

MAHER Julie, "Eweida and Others: A New Era for Article 9?". *The International and Comparative Law Quarterly*, bol.63, 2004, 213- 215. orr.-ak.

MARTÍNEZ TORRÓN, J., "Freedom of Religion in the European Convention on Human Rights Under the Influence of Different European Traditions". *The Pontifical Academy of Social Sciences Acta 17: Universal Rights in a World of Diversity, The*

Case of Religious Freedom; 2011 maiatzak 3, 328-355. orr.-ak.

MARTÍNEZ-TORRÓN, J., "Los límites a la libertad de religión y de creencia en el Convenio Europeo de Derechos Humanos". *Revista General de Derecho Canónico y de Derecho Eclesiástico del Estado*, bol.2, 2003.

McBRIDE, J., "Proportionality and the European Convention on Human Rights". En *The Principle of Proportionality in the Laws of Europe* (ed. Ellis E.), Oxford 1999.

McGOLDRICK, D., "Sharia Law in Europe? Legacies of the Ottoman Empire and the European Convention on Human Rights". *Oxford Journal of Law and Religion*, bol.8, 2019ko urriaren batean argitaratua, 517-66.orr.-ak.

NAVARRO-VALLS, R. eta MARTINEZ-TORRÓN, J., *Conflictos entre conciencia y ley: Las objeciones de conciencia*. Iustel, Madril, 2º ed. 2012.

ODEH, L.A., "Post-Colonial Feminism and the Veil : Thinking the Difference". *Feminist Review* vol.46º, 1993ko martxoaren batean argitaratua. Liburukia: 43 issue: 1, 26-37 orrialdeak.

RADACIC I., "Gender Equality Jurisprudence of the European Court of Human Rights". *European Journal of International Law*, bol 19º, 4 zbk, 2008, 841- 847. orr.-ak.

SAGESSER, C., "Citoyenneté à l'école: avec ou sans convictions? Approches européennes". Bepax (ed.Camille B.), 2018 otsailak 13 (azken kontsulta: 2021 ekainak 14). Erabilgarri: <https://bepax.org/files/files/OUTILS/bepax-etude-citoyennete-769-a-768-l-e-769-cole-03.pdf>.

SCHUON, F., " The mystery of the Veil". *Studies in Comparative Religion*, Spring bol.2, 1977, 1-15 orr.-ak.

STUART A., "Freedom of Religion and Gender Equality: Inclusive or Exclusive?". *Human Rights Law Review* bol.10, 429-436.orr.-ak.

TORRES GUTIÉRREZ, A., "La libertad de pensamiento, conciencia y religión (art. 9 CEDH)". *HHAA La Europa de los derechos:el Convenio Europeo de Derechos Humanos* (koo. Santolaya Machetti P. eta Garcia Roca F.J.) 2005, 567-589 orr.-ak

KAYAOGLU, T., "Trying Islam: Muslims before the European Court of Human Rights". *Journal of Muslim Minority Affairs*, bol.34, Issue 4, 2014ko urriaren 10an argitaratua, 345-364. orr.-ak.

VANONI, L., eta RAGONE, G., "From the Secularisation Theory to the Pluralistic Approach: Reconciling Religious Traditions and Modernity in Italian Case-Law.". *Law, Religion and Tradition* (ed.Giles J., Pin A. eta Frank S.), Springer International Publishing, Suitza, 2018.

JURISPRUDENTZIA

Kjeldsen, Busk Madsen and Pedersen, Denmark, 7 December 1976, Series A. no 23.

The Sunday Times v. United Kingdom, 26 April 1979. no.6538/74. Eskuragarri:
<http://hudoc.echr.coe.int/eng?i=001-57584>.

Kokkinakis v. Greece, 25 May 1993, Series A no. 260-A.

Otto-Preminger-Institut v. Austria, 20 September 1994, Series A no. 295-A.

Manoussakis and Others v. Greece, 26 September 1996, Reports of Judgments and Decisions 1996-IV.

Valsamis v. Greece, 18 December 1996, Reports of Judgments and Decisions 1996-VI.

Kalaç v. Turkey, 1 July 1997, Reports of Judgments and Decisions 1997-IV.

Dahlab v. Switzerland (dec.), no. 42393/98, ECHR 2001-V.

Refah Partisi (the Welfare Party) and Others v. Turkey [GC], nos. 41340/98 and 3 others, ECHR, 13 february 2003.

Phull v. France (dec.), no. 35753/03, ECHR 2005-I.

İ.A. v. Turkey, no. 42571/98, ECHR 2005-VIII.

Leyla Şahin v. Turkey [GC], no. 44774/98, ECHR 2005-XI.

Agga v. Greece (no. 4), no. 33331/02, 13 July 2006.

Kurtulmuş v. Turkey (dec.), no. 65500/01, ECHR 2006-II.

Folgerø and Others v. Norway [GC], no. 15472/02, ECHR 2007-III.

Karaduman v. Turkey (dec.), no. 41296/04, 3 April 2007.

Hasan and Eylem Zengin v. Turkey, no. 1448/04, 9 October 2007.

El Morsli v. France (dec.), no. 15585/06, 4 March 2008.

Mann Singh v. France (dec.), no. 24479/07, 13 November 2008.

Dogru v. France, no. 27058/05, 4 December 2008.

Kervanci v. France, no. 31645/04, 4 December 2008

Ahmet Arslan and Others v. Turkey, no. 41135/98, 23 February 2010.

Lautsi and Others v. Italy [GC], no. 30814/06, ECHR 2011.

Eweida and Others v. the United Kingdom, nos. 48420/10 and 3 others, ECHR 2013

S.A.S. v. France [GC], no. 43835/11, ECHR 2014.

Belcacemi and Oussar v. Belgium, no. 37798/13, 11 July 2017

Dakir v. Belgium, no. 4619/12, 11 July 2017.

Lachiri v. Belgium, no. 3413/09, 18 September 2018

Stavropoulos and Others v. Greece, no. 52484/18*, 25 June 2020.

